

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO VI. FORU PLANA



2021-2024

AURKIBIDEA

SARRERA	4
1. AURREKARIAK, ERREFERENTEAK ETA LEGE ESPARRUA	5
1.1 AURREKARIAK	6
1.2 ERREFERENTEAK ETA LEGE ESPARRUA	8
2. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA.....	13
2.1 HELBURUAK ETA METODOLOGIA.....	14
2.2 LAN PROZESUA.....	15
3. HELBURUA, PRINTZIPIOAK ETA BERMEAK.....	20
3.1 HELBURUA.....	21
3.2 PRINTZIPIOAK.....	22
3.3 BERMEAK.....	25
4. ESKU HARTZEKO ESTRATEGIA	27
4.1 I. ARDATZA. GOBERNU ONA.....	30
4.2 II. ARDATZA. AHALDUNTZE FEMINISTA	41
4.3 III ARDATZA. BERDINTASUNA GARAPEN IRAUNKORREAN	47
4.4 IV ARDATZA. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	55
5. NEURRIAK OPERATIBIZATZEN: ADIERAZLEAK, KRONOGRAMA ETA ARDURADUNAK	61
I. ARDATZA. GOBERNU ONA	62
II. ARDATZA. AHALDUNTZE FEMINISTA	83
III. ARDATZA. BERDINTASUNA GARAPEN IRAUNKORREAN.....	90
IV. ARDATZA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK.....	101
6.1 LAN EGITURAK: GENERO-ARKITEKTURA	110
6.2 PLANIFIKAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	116
6.3 AURREKONTUA	118

SARRERA

Dokumentu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak hurrengo lau urteetarako duen tresnarik garrantzitsuena aurkezten dugu, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko bidean aurrera egiteko eta emakumeok jasaten ditugun diskriminazio eta desberdintasunei modu koordinatu eta eraginkorrean aurre egiteko.

Aurreko planak ebaluatzeko prozesu baten emaitza da, genero-ikuspegiaren zeharkakotasun-mailari eta indarreko araudiaren betetze-mailari buruzko egoeraren diagnostiko baten eta egungo egoeraren azterketa baten emaitza. Prozesu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko eta haren foru-sektore publikoko politikariek eta teknikariek nahiz Bizkaiko emakume-elkarteek parte hartu dute. Lurralde-ibilbidea, lege-esparruaren bilakaera eta autonomia- eta foru-mailako jardueragomendioak hartu dira kontuan, bai eta pandemiak sortutako krisiak markatutako egungo egoeraren diagnostikoa ere. Hori dela eta, lehen bi kapituluek aurrekariak, erreferentziak eta kontuan hartu den lege-esparrua zehazten dituzte, eta erabilitako prozesua eta lan-metodologia deskribatzen dituzte.

Bestalde, Plan honek ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, du arau-erreferente nagusitzat. Arau-xedapen hori mugarri erabakigarria da berdintasunaren arloko foru-politiken bilakaeran, eta plan honetan jasotzen diren neurrien oinarri diren betebeharren esparrua ezartzen du. Era berean, plan hau 4/2018 Foru Arauan ezarritako aginduak betetzeko tresna eraginkorra izango da, eta erabat betetzen lagunduko du.

Aurreko planek Bizkaiko Foru Aldundian sortu duten ibilbideari esker, zenbait ikaskuntza lortu ahal izan dira plan hau egitean kontuan hartu den egiturari eta diseinuari dagokionez. Berdintasun-politika zeharkakotzeko beharra oinarritzko printzipio ukaezinetik abiatzen da, politika erakunde osora zabaldu dadin. Ildo horretatik, ezin izango da zeharkakotasun-estrategia garatu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren lidergo sendorik gabe; izan ere, organo horrek sustatu behar du aldaketa erakunde-kulturan, estrategia hori ezarri ahal izateko. Horregatik, Plana Bizkaiko berdintasun-politiken ildo estrategikoen arabera egituratzen da: Gobernu Ona, Ahalduntze Feminista, Berdintasuna Garapen Iraunkorrean eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzak.

Oinarri horretatik abiatuta, plangintza-dokumentuak tresna erraza eta operatiboa izan nahi du, eta tresna horretan definituko dira ezarpen-egituren konposizioak, xedeak eta helburuak, ardatz bakoitzari heltzeko esparru kontzeptuala eta Bizkaiko abiapuntuko egoera eta erronkak, programa, helburu eta neurrietan praktikan zehaztearekin batera. Azken bi kapituluek kudeaketa-tresnak (adierazleak, kronograma eta arduradunak) eta Planaren plangintza operatiboa, jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedurak zehazten dituzte.



1. AURREKARIAK, ERREFERENTEAK ETA LEGE ESPARRUA

1.1 AURREKARIAK

Bizkaiko Foru Aldundiak bi hamarkada baino gehiagoko ibilbidea egin du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko lanean. Ibilbide horretako lehen inflexio-puntu garrantzitsua 2000. urtean gertatu zen, Berdintasunerako Unitatea sortu zenean eta Berdintasunerako I. Foru Plana (2000-2003) egin zenean. Plan horri esker, lortu nahi ziren helburuen gaineko oinarriak ezarri ahal izan ziren, bai eta erakundearen barruan lan egiteko modu bat ezarri ere.

Ordutik, bost berdintasun-plan onartu dira. Plan horiek Bizkaiko Lurralde Historikoak arlo horretan hartutako konpromisoen eta lehenetasunen bilakaera islatu dute, bai eta kontzeptuzko ikuspegietan egin diren aurrerapenak eta jarduera hori inspiratu duten abiapuntuak ere.

Ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua onartzea funtsezko bigarren inflexio-puntua izan zen aurrerapen horretan, berdintasun-politikei maila sinboliko zein praktiko handiagoa eman baitzitzaie foru-politiken esparru orokorrean, eta Bizkaiko Foru Aldundiari bere jardueran genero-ikuspegia txertatzeko eta, horrela, berdintasun-politiken garapenean aurrera egiteko ahalmena ematen dion tresna bat sortu baitzen.

Testuinguru horretan, funtsezkotzat jo zen jarraian aurkezten den plana diagnostiko batean oinarritzea. Diagnostiko horrek, Bizkaiko lurralde historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez gaur egun dagoen egoera ezagutzea ahalbidetzez gain, bere manuen betetze-maila eta Foru Sektore Publikoan genero-ikuspegiaren zeharkakotasun-maila hasierako mailan ezagutzea erraztuko du, berdintasunaren arloan egindako aurrerapenak eta erronkak laburbiltzeko aukera emanez. Erreferentzia-esparru hori, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Plana (aurrerantzean, Berdintasunerako VI. Foru Plana) hurrengo planean jorratu beharreko 4/2018 Foru Arauaren edukiak zehaztu eta lehenetsiko dituen tresna errealista bihurtzeko oinarriak ezartzeko.

Abiapuntua hori izan bada ere, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) COVID-19 izeneko gaixotasun infekziosoa pandemia gisa deklaratu zuen 2020ko martxoaren 11n. Osasun-larrialdia zela eta, ezohiko neurriak hartu behar izan ziren konfinamendurako, mugikortasuna mugatzeko eta gizartean urruntzeko, eta horrek pertsona guztien eguneroko bizitza eta munduko herrialde askotako laguntza- eta ekoizpen-jarduera aldatu zituen, eta krisi ekonomiko eta sozial globala eragin zuen. Gaixotasunak Euskal Autonomia Erkidegoan duen hedapenaren aurrean, martxoaren 13an Eusko Jaurlaritzak osasun-larrialdiaren deklarazioa onartu zuen eta Euskadiko Babes Zibileko Plana aktibatu zuen.

Pandemiak eragin desberdina du emakumeengan eta gizonengan, eta datuek erakusten digute emakumeek eta neskek arrisku handiagoa dutela krisi honen ondorio negatiboetarako. Horregatik, hasierako planteamenduaz gain, larrialdiak aztertu behar dira, bi modutan ulertuta: batetik, premiazko premiak eta COVID 19 krisiaren ondoriozko inguruabar berriak agertzea; eta,

bestetik, testuinguru horretan, foruz gaindiko erakundeak eta adituak neurri ukigarriak definitzen ari diren gomendioak, egungo egoerak diagnostikotik abiatuta antzeman diren abiapuntuak desberdintasunak eragin ez ditzan.

2000-2003

- Aukeren Berdintasunaren eta Genero Politiken Unitatearen sorrera.
- Sailarteko Batzordearen sorrera ekainaren 30eko 3.548/2000 Foru Aginduari jarraituz.
- Genero-ikuspegia txertatzeko gomendioen eskuliburua (2001).



2004-2007

- Berdintasuna Taldearen sorrera.
- Bizkaiko Foru Aldundiko prozesuetan generoaren gaian esku hartzeko protokoloak (2006).
- Berdintasunaren eta Herritar Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren sorrera.

2008-2011

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen, Berdintasuna Taldearen eta Sailartekoen erregulazioa eta garapena (irailaren 29ko 130/2009 Foru Dekretuaren eta urriaren 13ko 107/2010 Foru Dekretuaren bidez aldatua).



2012-2015

- Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 1451/2013 Foru Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitako generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak jasotzen dituzten jarraibideak finkatzen dituenak.

2016-2019

- Ekainaren 20ko 4/2018 FORU ARAUA, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako.
- Otsailaren 18ko 17/2020 Foru Dekretua, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua sortzen duena.



1.2 ERREFERENTEAK ETA LEGE ESPARRUA

Berdintasunerako VI. Foru Planaren oinarria ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. Arau horren aginduek konpromiso zehatzak zehaztu, egituratu eta itzuli nahi dituzte. Halaber, kudeaketaren arloan Bizkaiko egungo legegintzaldiko jarduera bideratzen duten erreferentzia-planekiko koherentzia estrategikoa kontuan hartuta diseinatu da, eta autonomia-erkidegoan, estatuan eta nazioartean emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta indarkeria matxista desagerraraztearen arloan gertatzen ari diren legegintza-aurrerapenetatik elikatzen da.

Hala, prestaketa-prozesuan kontuan hartu den erreferentziazko dokumentazio nagusia honako hau izan da:

FORU ESPARRUA

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua.
- 17/2020 Foru Dekretua Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua.
- 127/2020 Foru Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea.
- Bizkaia Irekia. Gobernu Irekiko Estrategia.
- Bizkaia Egiten 2019-2023.

AUTONOMIA ESPARRUA

- 4/2005 Legea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.
- EAEko Berdintasun Politika Publikoen kalitate-estandarrak. Emakunde.

ESATU ESPARRUA


- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriakoa.
- Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Ituna

EUOPAR ESPARRUA

- Genero Berdintasunerako EBren Estrategia 2020-2025.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena).

NAZIOARTEKO ESPARRUA

- Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda (2015).
- Pekin + 20: Pekingo Ekintza Plataforma (2015).



EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. FORU PLANERAKO ERREFERENTEAK

FORU ESPARRUA

Ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.

Araua bost titulu ditu, eta 65 artikulua, 8 xedapen gehigarri, 3 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

- Atariko Tituluak xedapen orokorrak jasotzen ditu; xedea eta aplikazio-eremua zehazteaz gain, printzipio orokorrak markatzen dira.
- I. Tituluak eskumenak, funtzioak, antolaketa eta finantzaketa arautzen ditu, azken batean, Bizkaiko Foru Sektore Publikoari emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dagozkion funtzioak eta eginkizun horiei aurre egiteko baliatzen diren egiturak eta baliabideak.
- II. Tituluak Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriak arautzen ditu, azken batean, berdintasun-politikak zeharkakotzeko tresnak.
- III. Tituluak foru-sektore publikoak arau honen helburuak lortzeko hartuko dituen neurri zehatzak arautzen ditu, bere eskumen-eremuen arabera eta garapen jasangarria erreferentziazat hartuta.
- IV. Tituluak bermeen araubidea arautzen du.

Otsailaren 18ko 17/2020 Foru Dekretua. Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua.

Dekretua, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua sortzen duena elkarte feministen, emakume-elkarteen eta beste erakunde eta organismo batzuen partaidetza-organo gisa, baldin eta, beren helburu edo eginkizunen ondorioz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen badute, 4/2018 Foru Arauaren 18. artikulua betez.

Abenduaren 22ko 127/2020 Foru Dekretua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea.

Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea arautzen duen Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bizkaiko udalerrien eta, hala badagokio, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten udalaz gaindiko erakundeen arteko lanerako eta erakundearteko koordinaziorako gune gisa.

Bizkaia Irekia. Kabinete Irekiko estrategia.

Bizkaiko Foru Aldundiaren gobernantzaren arloko 5 erronka planteatzen ditu, honako hauek barnean hartuta: sormen kolektiboko sistema bat garatzea, ezagutza ireki eta banatua sortzea, erakundeekiko legitimitatea eta konfiantza indartzea, erkidegoa indartuko duen ikuspegi eta nortasun partekatua eraikitzea eta Bizkaiko Lurralde Historikoan balio inklusiboagoak eta berdintasunezkoagoak txertatzea.

Bizkaia Egiten.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egungo gobernuaren konpromisoa 2019-2023 laurtekorako. Konpromiso horrek barne hartzen ditu bigarren legealdirako programa osatzen duten lehenetsuneko 120 proiektu eta jarduera, Nazio Batuen Erakundeak ezarri dituen Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta.

ESPARRU AUTONOMIKOA

Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

Lege-testuetan formalki aitortutako berdintasunerako eskubidea praktikan eta eraginkortasunez aplikatzen dela bermatzeko araudia. Horretarako, euskal administrazio publikoek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko politikak eta jarduerak egin ditzaten lortzeko mekanismo eta neurri zehatzak planteatzen dira.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

2018-2021 laurtekoan EAEn berdintasunaren arloan jarduteko lehenetsunak ezartzen ditu, lau ardatzetan egituratuta: Gobernu ona, emakumeen Ahalduntzea, ekonomiak eta gizarte-antolaketa Eraldatzea eskubideak eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko Bizitzak bermatzeko.

EAEko berdintasun-politika publikoen kalitate-estandarrak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoen efizientzia eta eraginkortasuna hobetzeko egindako lanean oinarrituta egindako dokumentua, kalitate-estandar komunak ezarriz eta toki-eremuan garatzeari eta ezartzeari dagokionez erakundeen arteko koordinazioa hobetuz. Kalitate-estandarrak bi multzo handitan sailkatzen dira:

- Egiturazko baldintzak. Berdintasun-politika publiko egokiak diseinatu, ezarri eta garatzeko beharrezkoak diren baldintzak.
- Genero-ikuspegia lan-prozeduretan. Administrazioak gauzatutako ekintzetan eta prozeduretan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak.

ESTATU ESPARRUA

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriakoa.

Batez ere, Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan oinarritu zen, berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ezerako eskubidea aldarrikatzen baitu, bai eta 9. artikuluan ere, lege-testu berean, Estatua behartzen duena benetako berdintasuna bultzatzeko eta defendatzeko beharrezkoak diren ekintzak sustatzera. Emakumeen aurkako egungo diskriminazio-adierazpenak geldiaraziko dituen eta gizonen eta emakumeen arteko benetako

berdintasuna bermatuko duen arau-ekintza bat ezartzeko beharra aipatzen du, neurri zehatzak ezarriz eta politika publikoen bidez gizarte-estereotipoak eraitsiz. Alderdi garrantzitsuenetako bat lan-harremanen eta emakumeak jasandako enplegua eskuratzearen esparruko ezkutuko desberdintasuna izan zen. Gerora garatu zen, Enpleguan eta Lanean Emakumeen eta Gizonen Tratu eta Aukera Berdintasuna Bermatzeko Premiazko Neurriei buruzko 6/2019 Errege Lege Dekretuaren eta hura egiteko araudia ezartzen duten 901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuen bidez; horiek enpresetako berdintasuna, langileen ordezkariekin negoziatzea eta erregistro bat eta lansari-auditoria bat egiteko beharra ezartzen dute.

Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Ituna (2017).

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko borrokan dauden disfuntzioak eta gabeziak identifikatzen ditu; izan ere, estatu-eremutik lehen aldiz definitzen da giza eskubideen aurkako atentatu larria dela. 10 ekintza-ardatzetan egituraturako 292 neurri jasotzen ditu, honako hauek barne hartzen dituztenak: sentsibilizazioa eta prebentzioa areagotzea, erakundeen erantzuna hobetzea koordinazioaren bidez, arreta personalizatua bermatuz, adin txikikoentzako laguntzak indartuz, profesionalak trebatuz, indarkeriari buruzko ezagutza eta datuak areagotuz, Istanbulgo Hitzarmenaren printzipioak txertatuz, aurrekontu-zuzkidura egokia eginez, eta proposatutako neurrien jarraipena, ebaluazioa eta kontrola eginez.

EUOPAR ESPARRUA

Genero Berdintasunerako Europako Estrategia 2020-2025.

Estrategiak genero-ikuspegia integratzeko planteamendu duala hartzen du, jarduketa espezifikoeekin konbinatuta, eta interseksionalitatea du oinarri, hura aplikatzeko printzipio horizontal gisa, bere funtsezko helburuak betetzeko: genero-indarkeria amaitzea, genero-estereotipoei aurre egitea, genero-arrailek lan-merkatuan betetzea, ekonomiaren sektoreetan berdintasunerako parte-hartzea lortzea, soldata-arrakalari heltzea eta Gizonen eta emakumeen arteko pentsioak, laguntza-erantzukizunetan dagoen genero-aldea murriztea eta emakumeen eta gizonen arteko oreka lortzea erabakiak hartzean eta jardueran.

Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena, 2011n sinatua eta Espainiako Estatuak 2014an berretsia).

Legeak genero-arrazoiengatiko diskriminazioaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura berretsiz egiteko eskatzen du; estatuak behartzen ditu emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak modu eraginkorrean aplikatzera; eta emakumeen ahalduntzea azpimarratzen du, generoagatik jasaten duten indarkeria desagerrarazteko bide gisa. Aitortzen du, gainera, biktimen erreparazio-eskubidea bermatu behar dela, eta, horretarako, jasandako kaltearen ordaina, egia aitortzea, indarkeriazko gertaerak ez errepikatzea eta arreta emateko baliabide publikoen bidez erabat berreskuratzea bermatzeko neurriak hartu behar direla.

NAZIOARTEKO ESPARRUA

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda (2015).

Garapen Iraunkorreko Helburuek (GJH) munduko estatu guztiei pobrezari amaiera emateko, planeta babesteko eta mundu osoko pertsonen bizitzak eta ikuspegiak hobetzeko ekintza plana abian jartzeko deia egiten diete. 2015ean, Nazio Batuetako estatukide guztiek 17 helburu onartu zituzten, Garapen Jasangarrirako Agenda 2030 programaren barruan, eta plan bat ezarri zen helburuok 15 urtetan lortzeko.

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak nazioarteko komunitatearen konpromisoa bultzatzen du genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea lortzeko, 5. helburu espezifikoa bidez, Genero-berdintasuna, eta zeharkako moduan helburu guztietan.

Pekin+20: Pekingo Ekintza Plataforma (2015).

1995eko irailean egin zen Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzian herrialde eta pertsona ugariak parte hartu zuten, eta helburu bakarra zuten: genero-berdintasuna eta emakume guztien ahalduntzea, alde guztietan. Ekintza Plataformak genero-berdintasuna bizitzaren dimentsio guztietan irudikatu zuen, kezka bereziko esparruetan konpromiso zabalak formulatuz, baina herrialde bakar batek ere ez du programa hori gauzatzea lortu.

Beijingo 20. urteurrenak loturak berritzeko, konpromisoak suspertzeko eta borondate politikoa indartzeko aukera berriak eskaini zituen. Nazioarteko erronkak jasotzen ditu hamabi arlotan: pobrezia, hezkuntza eta gaikuntza, osasuna, emakumeen aurkako indarkeria, gatazka armatuak, ekonomia, boterea erabiltzea eta erabakiak hartzea, emakumeak aurreratzeko mekanismo instituzionalak, giza eskubideak, hedabideak, ingurumena eta neskatoak.



2. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

2.1 HELBURUAK ETA METODOLOGIA

VI. Foru Plana egiteko prozesua Ikerketa eta Partaidetza Ekintzaren metodologian oinarritu da. IAP ez da soilik ikerketa, ez bakarrik ikerketa parte-hartzailea, ezta ikerketa/ekintza bakarrik ere; hiru elementuen presentzia erreal, zehatza eta elkarrekiko erlazioa eskatzen du.


Ikerketak prozedura gogoetazkoa eta sistematikoa eskatu du, helburutzat errealitatea ikertzea izan duena. Kasu honetan, 4/2018 Foru Arauaren egungo betetze-maila eta Bizkaiko Foru Aldundian genero ikuspegiaren zeharkakotasunean izandako aurrerapena kontrastatzea.

Parte-hartzea gauzatu da VI. Foru Planaren kudeaketa-egiturak osatzen dituzten pertsonak beren errealitatea ezagutzen eta eraldatzen lagundu duten subjektu aktibo gisa inplikatu direlako prozesuan. Hori dela eta, Plana diseinatzeko, alde aurretik gogoeta egin da sailaren jarduera eta sektore-eremuen egoera aztertzei eratorritako berdintasun-premiei buruz, eta emaitzak eta proposamenak itzuli dira, erkatze eta sailtako politiketara egokitutako proposamen berriak sartzeko.

Ekintza, Foru Plana egiteko jarduera programatzaile gisa ulertuta, ikerketaren azken helburua ez ezik, ekintza bera ezagutza-iturri ere izan da, bai Foru Sektore Publikoa osatzen duten departamentu eta erakundeentzat, 4/2018 Foru Araua betetzearen ondoriozko agindu eta betebeharrak dagokienez, bai Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarentzat, hurrengo laurtekorako politika sektorialen lehentasunei dagokienez. Metodologia hori erabiltzeak oinarrizko hiru helburu lortzea ahalbidetu du.

- Lehenengoa izan da **Plana egiteko prozesuak berak gerora ezartzeko oinarriak ezar ditzala**, 4/2018 Foru Arauan jasotako egiturak sortuz eta abian jarritz, aliantzak indartzu eta prestakuntza-ekintzaren printzipio pedagogikoetan oinarritutako metodologiaren bidez lan eginez, Arauak barne hartzen dituen aginduek Bizkaiko Foru Aldundi osoarentzat eta haren sektore publikoarentzat dakartzaten konpromisoak buruzko ezagutzen oinarri komun bat finkatzea ahalbidetuko dutenak.
- Bigarrena izan da **genero-konpromiso eraldatzaileak lortzea**, genero-ikuspegia Bizkaiko garapen iraunkorrean eta, aldi berean, egingarrian txertatzeari funtsezko lanak egiteko, erantzukizunak errenta-beheko eta behe-goiko ikuspegi bikoitzarekin adostuz, proposatutako helburu eta neurrien bideragarritasun politiko eta tekniko eta Bizkaiko Aldundiaren politika eta lehentasunekiko koherentzia ziurtatzeko.
- Hirugarrena izan da **diagnostiko eta jarraipen sistematizatuko sistema bat diseinatzea eta ezartzea**, Berdintasunerako Foru Planaren betetze-mailaren denboran **iraunkorra** izango dena, aurrerapen eta erronken bilakaera modu errazean ezagutzeko aukera emango duena eta Bizkaiko Foru Aldundiaren genero-arkitektura osatzen duten egiturak kudeatzeko informazio-oinarri gisa balioko duena.

2.2 LAN PROZESUA



1. Proiektua abian jartzea.

Zer eta zertarako? Lehenengo urratsa berdintasun-politiken aurrekariak eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren egungo egoera argitzea izan zen, irekitako aurrerapenak eta erronka nagusiak definituz eta Bizkaiko Foru Aldundiaren barne-koordinaziorako egiturak abiaraziz.

Nola? 4 lan-bilera Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren eta aholkularitza teknikoaren artean.

Emaitza: Landa-lanaren diseinu adostua, eta sortu eta abian jartzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea –izaera politikokoa–, Sailarteko Talde Teknikoa –Berdintasuna Taldea–, sail bakoitzeko ordezkari batek eta Ahaldun Nagusiari Laguntzeko Unitateko bi kabineteetako ordezkari batek osatua, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako sail barruko batzordeak eratzea, sailtako eta kabineteetako zerbitziburuek osatuak.

2. Landa-lana Bizkaiko Foru Aldundiko langileekin.

Zer eta zertarako? Hurrengo urratsa izan zen berdintasun-politiken zeharkakotasun-maila sailetan ebaluatzeko eta genero-ikuspegia politika publikoetan txertatzeko tresna bat diseinatzea. Horretarako, abiapuntuko bi materialekin lan egin zen: Foru Arauaren aginduekin eta EAEko Berdintasun Politika Publikoen Kalitate-Estandarrekin. Konparaziozko azterketa bat egin zen, eta, bertan, zehaztu zen zer agindu zegozkien Foru Arauaren kalitate-estandarrekin eta zer manuk gainditzen zituzten estandar horiek. Hala, diagnostiko-tresna galdetegi batean zehaztu zen, une bakoitzean Foru Araua zein neurritan betetzen den zehazteko, baina, era berean, EAEko kalitate-estandarren betetze-mailari buruzko azterketa bat egin ahal izateko Bizkaian, tresna hori ezartzen duten beste erakunde batzuekin alderatuta.

Bestalde, prestakuntza-materialak diseinatu ziren Foru Arauaren oinarritzko edukiekin eta lan-dinamikekin, sailtan genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna kualitatiboki aztertzeke, lan-prozesu analitikoak ez ezik, prestakuntzakoa ere ezartzeko helburua betez.

Nola?

- Aurrez aurreko lan-saio bat Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearekin.
- 12 bilera bideokonferentzia bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko hamar departamentuetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako sail barruko 11 batzordeekin, bi ordu eta bi ordu eta erdi bitartekoak.
- 4/2018 Foru Arauaren aginduen betetze-mailari buruzko galdetegia bidaltzea.

11 batzorde sortzea erabaki zen, kontuan hartuta Ahaldun Nagusiari Laguntzeko Unitateko bi Kabineteek berezko Sail arteko Batzordea izan behar zutela, eta hamabi bilera egin ziren, Ogasun Batzordearen konplexutasun eta parte-hartzaile kopuru handia zela eta, gomendagarriagoa egin baitzen bilkurak bikoiztea bertaratutakoen parte-hartzea errazteko.

Emaitza: Lantaldeak baliagarri izan ziren Foru Arauari buruzko prestakuntza emateko eta sailek beren jardueran genero-ikuspegia ezartzeko ekintzei buruz egindako ekarpenak jasotzeko; galdetegia, berriz, sailei bidali zitzaion, Berdintasuna Taldeko ordezkariak bete zitzaion, bakoitzak bere saileko zuzendaritzetatik eta zerbitzuetatik Arauaren aginduak ezartzean izandako aurrerapenei buruz lortutako informazioarekin.

2020. urteko martxoa eta ekaina bitartean egindako bileretan 133 pertsonak hartu zuten parte, 63 gizonak eta 70 emakumeak.

3. Landa-lana Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Zer eta zertarako? Sailekin egindako barne-lanarekin batera, Bizkaiko berdintasun-teknikariak eta emakumeen elkarte-mugimenduak eta mugimendu feministak berdintasunaren arloan dituzten beharrei eta erronkei buruzko informazioa biltzeko prozesua planifikatu zen. Horretarako, abiapuntutzat hartu zen landa-lana egiteko unean irekita zeudela Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea eta Bizkaiko Emakumeen Partaidetza Kontseilua diseinatzeke eta abian jartzeko prozesuak.

Nola? Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea sortzeko prozesuan berdintasun-teknikariekin lan-taldeak egin zirenez, eta horietan egitura horrek berdintasunaren arloan izan beharko dituen beharrak jasotzen direnez, diagnostikorako analisi-material gisa aurreko topaketa horien emaitzak erabiltzea erabaki zen.

Mugimendu asoziatibo eta feministarekin bi lantalde egin ziren maiatzean, bata goizez eta bestea arratsaldean -parte-hartzea errazteko, laneko eta zaintzako erantzukizunak gorabehera-, osasun-krisiaren esparruan duten egoerari, beharrei eta erronkei buruzko diagnostikoa eguneratzeko.

Emaitza: Elkarte-mugimenduarekin egindako bileretan, guztira 21 emakume-elkartetako ordezkariak parte hartu zuten, eta haien ekarpenekin akta bidali zitzaion, ekarpen berriak edo beharrezkotzat jotzen zituzten zuzenketak egin zitzaion.

4. Bigarren mailako iturrien analisia.

Zer eta zertarako? Bizkaiko Foru Sektore Publikoko jarduera-eremuetako genero-arraileen bilakaera aztertzeke, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzatik eta sailetatik datorren bigarren mailako informazioa eta beste erakundetako estatistika-datuak bildu ziren.

Nola? Lau elkarrizketa egin ziren Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza osatzen duten pertsonekin, honako hauen diagnostikoan sakontzeko:

- Aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egitea.
- Ahalduzkoa eta elkarte-mugimendu feministarekiko eta emakumeen mugimenduarekiko harremana.
- Indarkeria matxista.
- Plana koordinatzea eta kudeatzea.

Aurreko guztia osatzeko, bigarren mailako iturriak bildu eta aztertu ziren, honako hauetatik zetozenak:

- Bizkaiko Foru Aldundiko sailak eta haien sektore publikoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren barne-informazioa.
- Eustat.
- INE.
- Lanbide.
- Indarkeria Matxistaren Behatokia Bizkaian.

Emaitza: Genero-arrakalen analisia, sailen arabera.

5. Diagnostiko-txostenaren zirriborroa egitea.

Zer eta zertarako? Aurreko saioetan jasotako materiala diagnostikoaren lehen zirriborroa egiteko erabili zen.

Nola? Zirriborroa uztaila eta abuztua bitartean egin zen, eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin kontrastatu zen. Ekarpenak gehitu ziren, eta azken diagnostikoaren dokumentua sortu zen.

Emaitza: Diagnostiko-dokumentuak bederatzi departamentuen Foru Arauaren aginduen betetze-mailari buruzko aurrerapenak eta erronkak jasotzen ditu, bai eta sailtako informazioaren eta bigarren mailako iturrien bidez antzemandako genero-arrakala nagusiak eta genero-ikuspegia beren lan-prozeduretan sartzean izandako aurrerapenak eta erronkak ere.

6. Berdintasunerako VI. Foru Planaren zirriborroa diseinatzea

Zer eta zertarako? Diagnostikoa egin ondoren, bost lantalde egin ziren Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin, honako helburu hauekin:

- VI. Foru Planaren esparru teorikoa eta kontzeptuala eta egitura definitzea.
- Lan-ardatz bakoitzerako lehenetsunak ezartzea.

Nola? Berdintasunerako IV. Foru Planaren lehendabiziko zirriborroa lehen analisi horretatik atera da. Bertan, lehenetsunak atera ziren abiapuntuaren arabera, eta helburu nagusia izan zen Bizkaiko Foru Aldundiak eta haren Sektore Publikoak neurriak aplikatzeko duten eraginkortasuna handitzea, diagnostikoan hautemandako desberdintasunak eraldatzeko gaitasun gisa ulertuta.

Emaitza: Berdintasunerako VI. Foru Planaren lehen zirriborroa.

7. Kontraste politikoa.

Zer eta zertarako? Hasierako plangintzan jasotako planteamenduen bideragarritasunik handiena eta sailaren helburuen eta erantzukizun-neurrien eta lehenetsun eta politika sektorialen arteko koherentzia ziurtatzeko, kontraste politikoa egin zen 2020ko urriaren eta abenduaren artean.

Nola? 12 lan-bilera, Enplegu, Gizarte Inklusio eta berdintasuna Sustatzeko Saileko diputatuaren, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzako zuzendariaren eta sailetako diputatu arduradunen artean. Inplikazio potentzial handiena duten sailetan, inplikaturako zuzendaritzetako zuzendariak ere parte hartu dute.

Emaitza: Maila politikora eramatea berdintasunaren arloko aurrerapen eta erronka sektorial nagusiak, helburuak eta neurriak kontrastatzea, eta hurrengo laurtekorako konpromisoak zehaztea.

8. Kontraste teknikoa.

Zer eta zertarako? Adostutako helburuak eta neurriak idazteko, adierazleak eta jarduketa-kronograma zehaztu ziren, plangintza-egitura guztia inplikaturako zuzendaritzekin eta zerbitzuekin batera landu zedin, jarduketa koordinatzeko eta bideragarritasun teknikoa ziurtatzeko.

Nola? 17 lan-bilera sailekin, kontraste teknikoa egiteko eta neurriak eta adierazleak sektore-eremu bakoitzeko lehentasunezko proiektuetara egokitzeko.

Emaitza: Helburuak eta neurriak 2021eko urtarrila eta apirila bitartean aurkeztu zitzaizkien ezarpenean zuzenean inplikaturako teknikariei, honako hauek eztabaidatuz: haien inplikazio kontzeptualak, abian jartzeko eskakizunak eta beharrak, aurreikuspenen arabera neurriak zein unetan izango diren egingarriak eta betetze-adierazleak bideragarriak.

9. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Plana aurkeztea.

Zer eta zertarako? Azken emaitza parte hartu zuten egitura guztiei aurkeztuko zaie, hurrengo laurtekorako jarduketa-proiektuaren ikuspegi bateratua finkatzeko.

Nola?

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeari aurkeztea.
- Sailarteko Talde Teknikoari aurkeztea – Berdintasuna Taldea
- Sail barruko batzordeetarako aurkezpenak.
- Aurkezpena Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluari.

Emaitza: Aurkezpenak 2021eko maiatza eta uztaila bitartean egingo dira.



3. HELBURUA, PRINTZIPIOAK ETA BERMEAK

3.1 HELBURUA

Emakumeek jasaten dituzten diskriminazio, zapalkuntza eta indarkeriek sistema patriarkal eta androzentriko bati erantzuten diote, bai eta jasaten dituzten botere-egiturei ere. Desberdintasuna egiturazkoa da, eta ez soilik politikoa edo legala. Horregatik, benetako berdintasuna da aldarrikapen feminista, eta azpimarratu behar da beharrezkoa dela berdintasunik gabeko egitura haustea eta bermatzea emakumeek, eskubideak, boterea edo baliabideak eskuratzeko orduan, abiapuntuko baldintza berberak izateaz gain, eskubide horiek egikaritzeko eta kontrolatzeko behar diren baldintzak izatea.

Berdintasunaren ikuspegi integral horretan kokatzen da, hain zuzen ere, VI. Foru Plan hau. Plan horren helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko behar diren baldintzak bermatzea, 4/2018 Foru Arauan xedatutako aginduak betetzea ekarriko duten lehentasunezko aurrerapenak eta jarduera zehaztuz, foru-konpromisoak berdintasun-politikekin duen konpromisoa definitzen duen tresna den aldetik. Gizarte-eskaerei erantzuten diena, gizarte-politika publikoak nabarmen hobetzeko.

Helburu hori funtsezko zutabe batean oinarritzen da: zeharkakotasun-estrategia eraginkor bihurtzea, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren gidaritzapean, Foru Aldundiaren lan-prozedura eta -tresnen aldaketan sakondu ahal izateko, horietan genero-ikuspegia txertatzeko. Plan horrek inflexio-puntua izan behar du, egungo egituretatik egitura eta lan-prozesu berriak eraikitzen igarotzeko.

Laburbilduz, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planak 2021-2024 ekitaldietan Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko esparru estrategikoa eskaintzen du.

3.2 PRINTZIPIOAK



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen eta 4/2005 Foru Arauaren arabera berdintasunaren arloan agintari publikoen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak erreferentzia moduan hartuta, Berdintasunerako VI. Foru Planak printzipio hauetan sakontzen du, izaera estrategikoa baitute:

PARADIGMA FEMINISTA

Paradigma feminista, munduan izateko eta egoteko modu gisa, filosofia gisa eta mugimendu sozial eta politiko gisa, gizarte-ordena zalantzan jartzea eta eraldatzea, Bizkaiko emakumeen herritartasun-eskubideak eraginkor bihurtzea eta gizarte justuago, iraunkorrago eta demokratikoago baten eraikuntza bermatzea ahalbidetzen duen oinarria da.

Horregatik, plan hau abian jartzeak zeharkakotasunez inplikatu du paradigma feministak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta diskriminazioak nola eta zergatik gertatzen diren ulertzeko egiten dituen ekarpenak zabaltzea eta aitortzea. Ekarpene horiek ez lirateke posible izango gizarte-egitura patriarkal guztiak errotik eraldatzeko aldarrikapenen buru izan den mugimendu feministaren bultzada, erresistentzia eta parte-hartzerik gabe, ikusgarritasuna, parte-hartzea eta emakumeen ahalduntzea eta praktiken eta kulturaren adierazpen guztiak desagerraraztea.

Paradigma feministak eginkizun estrategiko bat betetzen du plan honetan, genero-ikuspegi sektorialak eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzak gidatutako eta lan-ardatzetan jasotako berrikuspen estrategikoak gidatuko dituzten gogoeta- eta posizionamendu-prozesuak orientatzean.

GENERO IKUSPEGIA

Ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, honela definitzen du genero-ikuspegia integratzea: "Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian desberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduera espezifikoak txertatuz". Ildo berean, Europako Kontseiluko aholkulari adituen taldeak honako hau adierazi du: "Genero-mainstreaminga prozesu politikoak antolatzea (berrantolatzea), hobetzea, garatzea eta ebaluatzea da, genero-berdintasunaren ikuspegia politika guztietan, maila guztietan eta etapa guztietan, neurri politikoak hartzen parte hartu ohi duten eragileek txerta dezaten".

Genero-ikuspegia, beraz, tresna eta estrategia bat da, eta aukera ematen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa politika publikoetan txertatzeko; hartara, baliabide guztiak baldintza berberetan eskuratu ahal izatea bermatuko da, politika publikoak dauden genero-arrakalak kontuan hartuta planifikatuko dira, eta politika horiek benetako berdintasunaren aurrerapenean izandako emaitzak eta eraginak identifikatu eta ebaluatuko dira. Beraz, plan honen muinean egin dira aurrerapenak lan-metodologia horren eraginkortasunean.

INTERSEKZIONALITATEA

Intersekzionalitatea zeharkako printzipio bat da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren jarduera 4/2018 Foru Arauaren arabera gidatu eta bideratu behar duena. Bertan, identitateak eta horien bereizkeria-sistemak gainjarriztat edo intersektatutzat jotzen dira. Horrela, intersekzionalitateak, tresna analitiko gisa, aukera ematen digu generoa identitateekin gurutzatzeko moduak aztertze, ulertze eta horiei erantzuteko, bai eta gurutzaketa horiek desberdintasunari nola laguntzen dioten aztertze ere; hau da, aukera ematen du genero-diskriminazioa ikusarazteko eta jorrazteko beste diskriminazio-ardatz batzuekiko elkargunean.

Intersekzionalitatearen kontzeptuak zabaldu egiten du diskriminazio anizkoitzaren kontzeptua; izan ere, emakume askok bizi duten egoeraren ezaugarria da ez dela diskriminazioen batura bat, baizik eta diskriminazio-egituren sistema konplexu bat, askotarikoak eta aldi berekoak, egoera pertsonal edo talde sozial bakoitzean hainbat modutan intersektionatzen dutenak, eta, ondorioz, diskriminazio espezifikoak sortzen direla, haien osagaien baturaz bestelakoak.

Intersekzionalitatearen ikuspegia printzipio orientatzaile gisa sistematikoki sartzea funtsezkoa da diskriminazio-prozesuen konplexutasuna ikusarazteko eta jarduera publiko inklusiboagoen diseinuan aurrera egiteko. Agerian geratzen da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko beharrezkoa dela politika publikoek emakumeengan eta gizonengan duten eragin berezia ez ezik, kontuan hartzea nola duten eragina egitura-desberdintasunak eraikitzen eta indartzen, arrazoi hauengatik: sexua eta generoa, adina (bizi-zikloa), dibertsitate funtzionala, egoera ekonomikoa (gizarte-maila), sexu-orientazioa eta genero-identitatea, etnia (arrazalizazioa), nazionalitatea (jatorria/migrazioa) eta erlijioa (sinesmenak).

GIZA-ESKUBIDEAK IKUSPEGIA

Giza eskubideak berme juridiko unibertsalak dira eta gizabanakoak eta taldeak babesten dituzte oinarrizko askatasunak, eskubideak eta giza duintasuna oztopatzen dituzten ekintza eta ez-egiteetatik. Giza eskubideen nahitaezko izaera dela eta, erakundeek balioan jarri eta bermatu behar dituzte, ongizatea berdintasun-baldintzetan bermatzeko.

Beharrezkoa da, beraz, giza eskubideen ikuspegia hartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra ziurtatzeko, emakume eta neska guztien ahalduntzea bultzatzeko, haien aurka egiten diren diskriminazio interseksionalak ikusarazteko eta horiei aurre egiteko, eta indarkeria matxistaren eragina prebenitzeko eta murrizteko.

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia tresna moduan erabili behar dugu gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak identifikatu eta aztertzeke, eta, modu horretan, berdintasuna lortzea zailtzen duten diskriminazio-praktikak eta botere-harreman bidegabeak zuzentzeko. Horrez gain, beharrezkoa da eskubideak betetzea eta garatzea bermatzeko erabili behar diren beharrezkoak, aukerak eta estrategiak kontuan hartzea. Azken finean, foru-politikan giza eskubideen ikuspegia hartzeak berekin dakar emakumeak eta neskek eskubideen subjektu moduan hartzea.

GARAPEN IRAUNKORRA


Bizkaiko Foru Aldundiak legegintzaldi honetarako ibilbide-orri bat du, Bizkaia Egiten strategiaren inguruan antolatutako aginte-plan bat. Plan horretan, Bizkaia hobea hurrengo belaaldientzat uztera bideratutako lehentasunezko jarduerak jasotzen dira. Jarduera horiek guztiz bat datoz Garapen Jasangarriaren Helburuekin, eta lau esparrutan garatzen dira: jarduera ekonomiko lehiakorra sortzea eta kalitatezko enplegu-aukerak eskaintzea; pertsonak eta aukera-berdintasuna, mugikortasuna eta iraunkortasuna, eta kudeaketa moderno eta irekia.

Baina garapen jasangarria ez da posible izango hura ezartzeko estrategiek emakumei eragiten dieten diskriminazio eta desberdintasunak ezabatzen nola laguntzen duten behar bezala aztertu eta kontuan hartu gabe. Horregatik, planaren diseinu-gunean bertan eta ondorengo ezarpenean, Bizkaiko Sektore Publikoa osatzen duten sailetan eta erakundeetan garapen jasangarriko lehentasunak identifikatzea dago, bai eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren eta hura abiarazteaz arduratzen diren pertsonen arteko baterako lan-estrategiak ezartzea ere.

3.3 BERMEAK

Bizkaiko Foru Aldundiak ahalegin handia egin du desberdintasuna argitara ateratzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren diagnostikoa objektibizatzeko eta kuantifikatzeko, behatoki, azterlan, argitalpen eta askotariko tresnen bidez. Baina bada garaia aurrera egiteko justizia sozial handiagoko agertokietara, desberdintasuna aitortzeko politiketatik birbanaketa-politiketara eta berdintasunean eragin positiboa duten politiketara. Eta igarobide horrek nahitaez inplikazio eta konpromiso politikoa eskatzen du.

Aurrerapenak aurrerapen, berdintasun-politika publikoen oinarria, askotan, boluntarioratza-jardunbideak eta erakunde-arkitekturaren posizio ahulak dira, eta, horregatik, lidergo politikoa ezinbesteko baldintza da berdintasun-politiken ezarpenean aurrera egin ahal izateko, eta, ondorioz, benetako berdintasunaren gaineko eraginean.



Berdintasunerako Foru Arauaren aginduak betetzeko, eta, ondorioz, Berdintasunerako VI. Foru Plan honetan jasotako jarduerak betetzeko, beharrezkoa da lidergo politiko aktiboa, irmoa eta argia izatea. Lidergo hori honela zehaztuko da:

- Foru Arauaren aginduak betetzeko eta Berdintasunerako VI. Planetik eratorritako jarduerak garatzeko konpromisoa hartzea.
- Berdintasunaren arloko aginduak eta berariazko jarraibideak onartzea eta garatzea Bizkaiko Foru Aldundiarentzat eta haren sektore publikoarentzat, jarduera-sektorean genero-arrailak murriztea bultzatzeko.
- Berdintasunerako politika sektorialak garatzeko behar adinako aurrekontu-partida esleitzea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin aliantza estrategikoa sustatzea eta bultzatzea, komunikazio arina eta aldebiko lankidetzat sustatuz.
- Sendotzea lortzen duten aldaketak bultzatzea, benetan antolamendu-eraldaketak lortzeko, BFAREN beraren kulturarekin, egiturekin, prozedurekin eta prozesuekin zerikusia dutenak, eta berdintasuna lortzeko beharrezkoak diren balio-aldaketekin zerikusia dutenak.



4. ESKU HARTZEKO ESTRATEGIA

Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planak jarduera-estrategia definitzen du, hau da, Aldundiak berdintasunaren arloan duen jarduera bideratzeko diseinatutako ibilbide-orria, Bizkaiko lurraldean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-errealitatea aldatzeko konpromiso zehatzak artikulatuz eta operatibizatuz eta, horretarako, lan-prozesuak, baliabideak eta denborak zehaztuz.

Irizpide horietatik abiatuta, VI. Plana 4/2018 Foru Arauan eta indarrean dagoen gainerako legerian jasotako alderdi asko azpimarratu, azpimarratu eta garatzeko tresna gisa pentsatuta dago, neurri eta proposamen zehatz eta egingarrien bidez praktikan jartzeko xedearekin, berdintasun-arloko foru-politiken iraunkortasunerako oinarri gisa.

VI. Foru Planaren plangintza EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planarekin lerrotatze aldera, plangintza lau lan-ardatzen arabera egiten da.

- Gobernu ona.
- Ahduntze feminista.
- Berdintasuna garapen iraunkorrean.
- Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.

Lan-ardatz bakoitzerako honako hau ezartzen da:

- Esparru teorikoa eta kontzeptuala, diagnostikoan antzemandako aurrekari, aurrerapen eta erronkekin batera.
- Horren azpian dagoen garapen estrategikoa, honako hauen bidez zehazten dena:
 - **Programak**, hau da, lan-ardatz bakoitzaren funtsezko alderdiak bateratzen dituzten helburuen multzokatzeak, Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan berdintasunaren arloko jarduera ardazteko. Ardatzak 14 programaren bidez garatzen dira.
 - **Helburu estrategikoak**, plana indarrean dagoen lau urteetan lortu beharreko helburuak egituratzen dituztenak. Programek 32 helburu estrategiko biltzen dituzte guztira.
 - **Neurriak**, hau da, helburuak lortzeko proposatzen diren lan-prozesuak osatzen dituzten jarduera-proposamenen multzoa. Helburu estrategikoak 150 neurriren bidez garatzen dira.

Horrela, planak lau urterako ezarri beharreko strategiarekin lotutako epe luzeko begirada bat konbinatzen du, neurritan zehaztutako ardatz, lan-programa, helburu estrategiko eta lortzeko lan-prozesuen bidez deskribatzen dena, eta beste begirada exekutibo bat, hurrengo kapituluaren garatzen dena, neurri horietako bakoitzerako zehaztapenean, betetze-adierazleetan, zerbitzu edo zuzendaritza eta sail arduradunetan eta kronograman oinarrituta.



4.1 I. ARDATZA. GOBERNU ONA

Bizkaia Irekia Gobernu Irekiaren Ekintza Planaren helburua Bizkaiko herritarren balorazioa ezagutzea, neurtzea, ebaluatzea, partekatzea eta jasotzea da, kudeaketa hobetzeko, eredu instituzionala eta legitimitatea indartzera eta baliabide publikoen kudeaketaren eraginkortasuna hobetzera bideratutako aldaketa kultural baten bidez. Gobernu irekiaren ereduaren printzipioak honako hauek dira: ikuspegi eta nortasun partekatua, ekintza publikoaren erantzunkidetasuna eta osotasuna, ezagutza irekia eta banatua izatea, gardentasuna, ebaluazio-ekintza eta kontuak emateko espazioak eta herritarren parte-hartzea.

Kudeaketa-eredu gardena, irekia eta arduratsua da, eta garapen ekonomikoarekin hertsiki lotuta dagoen gobernantzaren kontzeptua zabaltzen du, Garapenerako Nazio Batuen Programaren (PNUD) Gobernu Onaren definiziora hurbiltzeko. Eredu horren helburua ez da soilik garapena, baizik eta eskubide-berdintasuna, adostasunak bilatzea eta herritarren beharrei erantzutea, eta erabakiak hartzeko prozesuak egiten ditu. Modu parte-hartzailea eta gardena, eraginkortasuna, efizientzia eta perspektiba dituena

Testuinguru horretan, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planaren Gobernu Onaren ardatzak genero-ikuspegia gobernu irekiaren eremuan ikuspegi intersektorialetik zeharkakotzeko estrategia ezartzen du, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzera bideratutako politika publikoak diseinatzeko eta garatzeko aukera emango duten baldintzak sortzeko tresnak definituz, justizia soziala eta betetzea bermatzeko ezinbesteko baldintza gisa. Giza eskubideak, desberdintasun-egoerak sortzen dituzten gizarte-dinamikak jomuga jarriz eta neurri zuzentzaileak planteatuz.

Estrategiak antolamenduaren erantzunkidetasuna eskatzen du, eta horretan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren eginkizuna da strategiaren garapena bultzatzea, laguntzea, koordinatzea eta jarraipena egitea Foru Sektorre Publikoko sail eta erakunde guztietan, eta sailtako eta erakundeetako teknikarien eginkizuna da beren sektoreari buruzko ezagutza eta egiturak eta prozedurak premia sektorial espezifikotara egokitzeo dedikazioa eta borondatea eskaintzea. Bestalde, politikarien eginkizuna legitimitatea eta baliabideak ematea da, denborari, pertsoneri eta dedikazio ekonomikoari dagokienez.

Era berean, gobernantza-ardatz honek gutxienez bi gogoeta dakartza antolamendu-ereduan: lehenengoa Bizkaiko administrazio publikoaren egiturak, kudeatzeko moduak eta koordinazioa berrikustera bideratuta dago, diskriminazioak mantentzea eragiten duten elementuak errotik desagerrarazteko; bigarrenak aurrerapenak dakartza lan-prozeduren aldaketetan, eta politiken bihotzean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak jartzten ditu, berdintasunez asetzeko bi sexuen beharrak.

4/2018 Foru Arauaren onarpenak Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartzen dituen betebeharrak ezartzen ditu, berdintasunerako eta sexuagatiko diskriminaziorik ezerako eskubide guztiak benetan baliatzeko bermeari dagokionez.

I. Tituluan, 3 kapitulutan egituratuta, Bizkaiko Foru Sektore Publikoak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituen eskumenak, funtzioak, antolaketa eta finantzaketa arautzen dira, bai eta eginkizun horiei aurre egiteko baliatzen diren **egiturak eta baliabideak** ere.

Diagnostikoak aurrerapen garrantzitsuak egin ditu arlo horretan, eta honako hauek dira:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoan berdintasunerako gaikuntza eta gaitasuna duten pertsonen kopurua handitzea.
- Foru Arauan xedatutako barne-koordinazioko egitura guztiak sortzea eta abian jartzea:
 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea, politikoa.
 - Sailarteko Talde Teknikoa, Berdintasuna Taldea, teknikoa.
 - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sail barruko batzordeak.
- Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua sortzea.
- Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea diseinatzeko prozesua.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa osatzen duen taldea berriki handitu bada ere, erronka gisa, Foru Araua osatzen duten mandatuak garatzeak gaur egun eskuragarri daudenak baino baliabide gehiago eskatzen jarraitzen du, egiturari eta aurrekontuari dagokienez, eta berdintasun-politiken ezarpena bermatzeko behar den konpromiso politikoaren zati gisa, zeinak informazio eta prestakuntza politiko handiagoak eta politiken jarraipenean eta ebaluazioan inplikazio handiagoa ere hartu behar baititu.

Langileen kudeaketari dagokionez, hainbat aurrerapen ikusten dira:

- Enplegu publikorako sarbide- eta hautaketa-prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeak ibilbide luzea du BFAn: berdintasunari buruzko edukiak gai-zerrendetan, merezimenduen balorazioa ezagutza horietan oinarrituta, eta epaimahai eta epaimahai parekideen osaera, genero-ikuspegiarekin.
- Aurreko legegaldian, berdintasuneko gaikuntza-prozesuak finkatu dira, eta berdintasunerako edukiak txertatu dira prestakuntza-prozesu orokorretan.
- Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan, indarrean dagoen planak genero-ikuspegia barne hartzen du, eta sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko protokolo bat dago.

Gainditu gabeko erronka gisa, berdintasunaren arloko prestakuntza-plana indartu behar da, langileen gaikuntza progresibo eta iraunkorra bermatzeko, oinarritzko prestakuntza-mailatik hasi eta lan-prozesuetan genero-ikuspegia ezartzeko gaitasunak garatzeraino. Funtsezkoa da prestakuntza-plan horretan teknikarien eta politikarien gaikuntza jasotzea; izan ere, erabakiak hartzeko guneetan daudenen prestakuntzarik gabe, murriztu egiten da zeharkako politika erreal eta eraginkorrek lortzeko laguntza lortzeko egingarritasuna.

Beste erronka bereziki garrantzitsu bat Bizkaiko Foru Aldundiko langileen barneko berdintasun-plan bat egitea da, plan honetatik bereizita eta langileen arloko politikako jarduera eta neurri guztiak bertara bideratuta, Enplegatutako Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, eta indarkeria-egoerak jasaten dituzten emakumeentzako

neurriak biltzea; neurriok plan horretan sartuta egon daitezke, hala nola, lanean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa.

Bestalde, eta lan-prozedurei dagokienez, II. Titulua 9 kapitulutan egituratzen da, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriak arautzen ditu:

Aurrekontuen plangintza eta kudeaketa: Foru Arauaren 26. artikuluan, aurrekontuen kudeaketa eta plangintzari buruzkoan, ezarritakoa betez, aurrerapen nabarmenak egin dira 2018ko aurrekontu-ekitaldian Enplegu eta Ekintzailetzarako programarekin genero-ikuspegia gastuen aurrekontuan txertatzeko proiektu pilotua abian jarri zenetik. 2021eko ekitaldian, dagoeneko 20 aurrekontu-programatan integratu da analisi-prozesu hori eta 2022an Bizkaiko Foru Aldundiko aurrekontu-programa guztietara zabalduko da.

Kontuak emateko aurrekontu-faseari dagokionez, 2019ko Kontu Orokorrean txertatu zen genero-eraginari buruzko lehenengo txostena.

Datozen ekitaldietarako erronka genero-ikuspegia Sarrerren Aurrekontuan txertatzea da, prozedura foru-sektore publiko guztira hedatzea eta emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak diseinatzea, berdintasunean egindako inbertsioa kuantifikatzeko, hartara, zeharkako politiken analisi kuantitatibo eta kualitatibo bat egin ahal dadin.

Ikerketak eta Estatistikak: Azterlan eta estatistiketan genero-ikuspegia sartzeari dagokionez, kasu zehatzetan aurrera egin da datuak sexuaren arabera banatzerakoan, baina aurrerapen hori ez da orokorra. Gobernu Irekiaren Estrategiaren esparruan, 2020an Gardentasun Plana diseinatu da, datuen eskuragarritasuna eta datuen erabilera politika publikoen kudeaketarako sustatzeko hainbat neurri proiektatzen dituen. Testuinguru horretan, erronka gisa definitu da funtsezko zerbitzu eta erakundeekin hainbat lantalde antolatzea, Planaren koordinazio-egiturak jarraibide komunei buruz diseinatu eta prestatzeko, datuen bilketa, aldagai berriak txertatzea eta gurutzatzea errazteko, sektore-mailako desberdintasunak hobeto ezagutzeko eta datuak aztertu eta zabaltzeko.

Arau-ekoizpena: Formalki, araugintzari buruzko 25. artikuluko aginduak betetzen dira. Sail guztiek genero-eraginaren aurreiazko ebaluazioak egiten dituzte, nahiz eta gehienek adierazi duten prozesua izapide gisa egiten dutela, lan horretarako behar den prestakuntzarik ez dutela edo neurri eraldatzaileak diseinatzeko tresnaren erabilgarritasuna ez dutela bistaraten.

Tresna horrek neurrien garapenean benetako eragina izan dezan, egiteko prozedura berrikustea eta egituren artean zabaltzea da erronka, prestakuntza-ekintzako prozesuen bidez, diseinuaren fasetik genero-ikuspegia araudietan txertatzen duten esperientzia pilotuekin, bai eta aholkularitza handiagoa ematea hura egiteaz arduratzen diren pertsonen eta emaitzen jarraipen kualitatiboagoa egitea ere.


Kontratuak, Dirulaguntzak eta Lankidetzak Hitzarmenak: Sail guztiek adierazi dute kontratuetan berdintasunerako klausulak sartzen dituztela, 2018an onartutako Administrazio Kontrataziorako Gida Praktikoaren gomendioei jarraikiz: klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak txertatzeko irizpideak eta jarraibideak.

Erronka gisa, uste da beharrezkoa dela edukiak berrikustea eta eguneratzea, eta aurrera egitea klausulen betetzearen eta eraginaren jarraipenean, bai eta ezarritako irizpideak betetzen ez diren kasuetarako zehapen-mekanismoen diseinuan ere. Harago, hainbat sailek onartu dute berdintasunerako klausulak orokorrean aplikatzea, eta, beraz, tresna horrek gizartean eragiteko duen gaitasuna kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren Urteko Kontratazio Plana berrikustea, prestakuntza-ekintza prozesu bat egiteko, plan horretatik ateratako proiektu pilotuen bidez, ikasitakoa modu praktikoan aplikatzeko, dagozkien sektoreetan eragin sozial handiena duten klausulak identifikatuz.

Barneko eta kanpoko informazioaren eta komunikazioaren ekoizpena eta kudeaketa. Barneko eta kanpoko informazioaren eta komunikazioaren ekoizpenari eta kudeaketari dagokienez, formalki betetzen dira 23. artikuluko aginduak; izan ere, gehienbat, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren jarduerari esker, ekintzak egiten dira herritarrak sensibilizatzeko emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko beharraz eta indarkeria matxista desagerrarazteko beharraz, eta teknologia berrietan emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako informazioa eta ezagutzak sortzea bultzatzen da. Gizarte-komunikabideetan, eta herritarrek diskriminazioaren arloan dituzten eskubideei buruzko informazioa zabaltzen da, bai eta eskura dituzten mekanismoei eta baliabideei buruzkoa ere, adibidez, Indarkeria Matxistaren Behatokiaren webgunearen bidez. Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzak sustatutako jardunaldi eta kongresu gehienak ere egin dira. Erronka gisa geratzen da neurri handiagoan ikusaraztea berdintasunerako ekintzak Foru Aldundiaren komunikazio-jardueren esparru globalean.

Presentzia eta ordezkari-tza orekatua: Diagnostikoak agerian utzi du organo, batzorde, lan-mahai, epaimahai, epaimahai eta pertsona anitzeko beste edozein organotan presentzia orekatua lortzeko agindua betetzen dela, eta ikusten ez den kasuetan, 4/2018 Foru Arauaren 22. artikulua 3. a) puntuak ezarritako salbuespenen artean sartzen dira. Nolanahi ere, bereizketa horizontala ikusten da, bereziki arlo sozialetan (feminizatuetan) eta sail teknikoetan, hala nola Iraunkorrean. Agindu hori betetzeko, beraz, beharrezkoa da bereizketa horizontala murrizteko lan egitea.

Diagnostikotik eratorritako gairak gabeko erronkak programen eta helburu estrategikoen bidez egituratu dira; Gobernu Onaren arloan, honako hauek dira:



Ondoren, helburu horiek betetzeko proposatutako neurriak zehaztuko dira.

1. PROGRAMA. KONPROMISO POLITIKOA HANDITU

1.1 helburua. Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromiso politikoa zehaztu eta ikusgarritasuna eman.

- 1.1.1 Sailen Zuzendaritza Batzordeen bileretan berdintasuneko eduki espezifikoko espazioak sortzea.
- 1.1.2. Zuzendaritza-batzordeetan berdintasun-politiken garapena aztertzea.
- 1.1.3. Urtero diseinatzen diren politikariei zuzendutako berdintasunaren arloko prestakuntza-guneetan parte hartzea.

1.2 helburua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa Indartzea

- 1.2.1. Aldian-aldian Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren beharrak aztertzea eta, hala badagokio, eguneratzea, bere eginkizunak betetzeko egitura egokia izan dezan.
- 1.2.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren aurrekontuaren eta BFaren kudeaketa propioko aurrekontuaren gaineko ehunekoa mantentzea edo handitzea, aurreko ekitaldiarekiko, baldin eta oinarritzko zerbitzuak eta prestazioak baldintzatzen dituzten salbuespenezko inguruabarrak gertatzen ez badira.
- 1.2.3 Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propioko aurrekontuaren gaineko ehunekoa mantentzea edo handitzea, aurreko ekitaldiarekiko berdintasun-politiketara bideratutako aurrekontuari dagokionez, baldin eta oinarritzko zerbitzuak eta prestazioak baldintzatzen dituzten salbuespenezko inguruabarrak gertatzen ez badira.

1.3 helburua. Urteko planifikazio operatiboa eta jarraipena handitu eta hobetu.

- 1.3.1 Plan honen esparruan urtero egiten diren jardueren jarraipena egiteko tresna diseinatzea.
- 1.3.2 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren jarduerari buruzko urteko memoria egitea.
- 1.3.3 Foru Arauaren betetze-maila ebaluatzea.
- 1.3.4. Urteko plangintza operatiboa egitea eta horren jarraipena egitea berdintasun-politikak koordinatzeko egiturekin.
- 1.3.5 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzako pertsona bat esleitzea, sail bakoitzari aholkuak emateko.

2. PROGRAMA. GENERO PESPEKTIBAREN TXERTAKETA LANGILEEN KUDEAKETAN

2.1 helburua. Genero-ikuspegia txertatu Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren Sektore Publikoaren langileen kudeaketan.

- 2.1.1 Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun planean aurrera egiten jarraitzea, langileen politikako jardura eta neurri guztiak Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planetik bereiz daitezela, Bizkaiko Foru Aldundiaren Barne Berdintasunerako Plana osatuz, FFKZren mende, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren lankidetzarekin, indarrean dagoen araudi autonomikoa eta estatukoa betez.
- 2.1.2 Lan-arloko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jardura-protokoloa aldi berean berrikustea eta eguneratzea.
- 2.1.3 Bizkaiko Foru Sektore Publikoko Foru Erakundeetan Berdintasun Planak egiteko eta abian jartzeko aholkularitza ematea, indarrean dagoen legeriaren arabera eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren lankidetzarekin.
- 2.1.4 "Danonartean" plataforman foru-erakunde publikoetan berdintasunaren arloko gune bat sortzea eta aldi berean eguneratzea.

2.2 helburua. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren Sektore Publikoaren langileen prestakuntza progresibo eta iraunkorra bermatu.

- 2.2.1 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta, teknikariei zuzendutako etengabeko prestakuntza-plan progresibo bat diseinatzea eta ezartzea, ardatz guztiak inplikaturik dituen eta Plan honen helburu estrategikoekin bat datorrena. (OHARRA: neurri horren garapena, jarraipena eta ebaluazioa Berdintasunerako Barne Planera eramango da).
- 2.2.2. Politikariei zuzendutako prestakuntza-ekintzak diseinatzea eta ezartzea, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta. Ekintza horietan, eduki hauek jasoko dira: Berdintasunerako oinarritzko prestakuntza –Foru Araudia eta Plana– eta beren sailerako urteko plan operatiboak ezartzeko prestakuntza espezifikoak.
- 2.2.3 Bizkaiko Foru Aldundiko langileak gaitzea lan-arloko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzio- eta jarduketarako. (OHARRA: neurri horren garapena, jarraipena eta ebaluazioa Berdintasunerako Barne Planera eramango da).
- 2.2.4. BFAren prestakuntza genero-ikuspegia txertatzearan jarraipena egitea Herri Administrazio eta Erakunde arteko Harremanen Sailaren eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren artean. (OHARRA: neurri horren garapena, jarraipena eta ebaluazioa Berdintasunerako Barne Planera eramango da).
- 2.2.5 Foru Erakundeei aholkularitza ematea, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan, beren sektore-eremuetan berdintasunaren arloko oinarritzko eta berariazko prestakuntza diseinatzeko, 4/2018 Foru Arauaren aginduak eta Plan honen helburu estrategikoak betetzeko gai izan daitezela.
- 2.2.6 Foru-erakundeei zuzendutako prestakuntza-pilulak diseinatzea eta garatzea, haien arau-betebeharrak garatzen laguntzeko.

3. PROGRAMA. GENERO-IKUSPEGIAREN TXERTAKETA LAN PROZEDURETAN

3.1 helburua. Genero-ikuspegia txertatu foru-aurrekontuetan.

- 3.1.1 Talde tekniko bat sortzea eta koordinatzea, berdintasuneko teknikariek eta aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko arduradunek osatua.
- 3.1.2 Genero-ikuspegia duen aurrekontua egiteko tresna bat diseinatzea, aurrekontu-programa guztietan aplikatzeko.
- 3.1.3 BKON aurrekontu-tresna egokitzea, berdintasuneko zuzeneko inbertsioa eta zeharkako inbertsioa jaso eta ikusarazteko.
- 3.1.4 Aurrekontu-programen arduradunei prestakuntza ematea, aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egiteko eta berdintasun-gastua definitzeko.
- 3.1.5 Ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuen Foru Arauaren Proiektuaren genero-eraginari buruzko txostena egitea, genero-aurrekontuari buruzko ikuspegi berriarekin.
- 3.1.6 Realizar una evaluación de impacto de Género en la Cuenta General.
- 3.1.7 Diru-sarreraren aurrekontuan genero-ikuspegia txertatzeko programa pilotu bat diseinatzea.
- 3.1.8 Foru Sektore Publikoan genero-ikuspegia duen aurrekontua txertatzeko estrategia diseinatzea.

3.2 helburua. Genero-ikuspegia foru-informazio, -azterlan eta -estatistiken produkzioan txertatzen dela bermatu.

- 3.2.1. Estrategia Digitaleko Zerbitzuaren eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren artean lanerako eta koordinaziorako gune bat sortzea, datuen gobernantza eraikitzeko proiektuaren genero-eragina aztertzeke, bai eta Bizkaiko emakumeek dituzten genero-desberdintasunen eta -arrakalen ezagutzan sakontzeko proiektuak eskaintzen dituen ahalmenak eta aukerak ere.
- 3.2.2 Lantalde bat eratzea Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren eta Lantik enpresaren artean, genero-ikuspegia txertatzeko BFaren garapen informatikoetan.
- 3.2.3 Aldizka bilerak egitea Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin, genero-ikuspegia txertatzeko plan estrategikoetan eta kudeaketa-planetan jasotzen diren zerbitzu eta tresnetan, bai eta 2020-2023 aldirako Herritarren Partaidetzarako Planaren garapenean ere.
- 3.2.4 Bizkaiko Foru Aldundiak adimen artifiziale ezartzeko bere proiektuetan erabilitako algoritmoen genero-eragina aztertzea eta gerta daitezkeen genero-joerak zuzentzeko neurri zuzentzaileak txertatzea.
- 3.2.5 Intersektionalitateari eta hura foru-politika publikoetan aplikatzeari buruzko hausnarketarako, prestakuntzarako eta ekintzarako gune bat sortzea.
- 3.2.6 Lantikeko zuzendaritza-taldeari zuzendutako prestakuntza-prozesu bat egitea, oinarritzko prestakuntza bat eta berriazko beste bat barne, BFaren garapen informatikoetan genero-ikuspegia txertatzeko moduari eta Lantik erakundeak erakunde kontratatzaile gisa duen eraginari buruzkoa.
- 3.2.7 Etengabeko prestakuntza-prozesu bat egitea Lantikeko langileentzat, garapen informatikoen genero-adierazleei eta genero-eraginari buruz, ikuspegi teknikoetik.
- 3.2.8 4/2018 "Azterlanak eta estatistikak" Foru Arauaren 24. artikulua betetzea errazteko gida diseinatzea, eta hura ezartzen dela bermatzeko jarraibide bat onartzea.
- 3.2.9 Genero-ikuspegia azterlanetan eta estatistiketan sartzeko eta genero-adierazleak ikuspegi intersektionaletik diseinatu, lortu eta zabaltzeko beharrezkoak diren lan-prozesuei buruzko prestakuntza ekintza garatzea, gutxienez sail arteko batzordeetako kideek parte hartuta.
- 3.2.10 Inkestetan sexuaren aldagaia txertatzea, estatistiketan, azterlanetan eta datu-bilketan, sektoreko desberdintasunei buruzko ezagutza hobetzeko aukera ematen duten adierazleak aplikatuz eta sexuaren aldagaia eta diskriminazio-faktoreak aztertzeke beste aldagai batzuk gurutzatu ahal izateko moduko lagin zabalak bilduz.

3.3 helburua. Genero-ikuspegia arau-ekoizpenean txertatzea kualitatiboki hobetu.

- 3.3.1 Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostenak ezartzeko estrategia berria diseinatzea.
- 3.3.2 Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko Foru Dekretua eguneratzea, Diseinutako Estrategiaren arabera.
- 3.3.3 Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko prestakuntza-ekintza bat egitea sail barruko Batzordeekin.
- 3.3.4 Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak egitea, 4/2018 Foru Arauaren baldintzetan, edukiei eta egiturari buruzko gomendioekin bat etorriz.
- 3.3.5 Bizkaiko Foru Aldundiak egindako Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioen jarraipenari buruzko urteko memoria egitea, estrategia berriaren eragina berariaz aztertuz.

3.4 helburua. Berdintasun-klausulen genero-eragina areagotu kontratu, dirulaguntza eta lankidetzeta-hitzarmenetan

- 3.4.1 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren eta Kontratazio Zuzendaritzaren artean talde tekniko bat sortzea, kontratazio-klausulen genero-eraginaren jarraipena egiteko.
- 3.4.2 Administrazio Kontrataziorako Gida Praktikoa berrikustea: klausula sozialak, ingurumenekoak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren beste politika publiko batzuei buruzkoak txertatzeko irizpideak eta jarraibideak, proposatutako klausulak zabalduz edo aldatuz eta indarkeria matxistaren biktimak sentsibilizatzeko, prebenitzeko, artatzeko eta erreparatzeko klausulak txertatuz.
- 3.4.3 Bizkaiko Foru Aldundiaren Kontratazio Plana berrikustea, eta horren arduradunekin berdintasunerako klausulak diseinatzeko sentsibilizazio-, prestakuntza- eta/edo laguntza teknikoko prozesuak egiteko lehentasunezko kontratuak definitzea.
- 3.4.4 Foru Sektore Publikoko kontratazioetan sartutako berdintasun-klausulen jarraipena egiteko tresna bat sortzea, eta klausula horien betetze-mailaren jarraipena eta egiaztapena egiteko sistemak diseinatzea.
- 3.4.5 Foru Sektore Publikoko hitzarmenetan eta dirulaguntzetan klausula sozialak eta berdintasun-klausulak ezartzeko estrategia diseinatzea, Ogasun eta Finantza Saileko Laguntza eta Aholkularitza Zerbitzuarekin lankidetzan.
- 3.4.6. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren kontratuetan berdintasunerako klausulak txertatzea, kontratuaren xedera eta eragindako eremuan antzematen diren desberdintasunetara egokituta, eta horien eragina berrikustea, genero-arrakalak murrizteari dagokionez.
- 3.4.7 Bizkaiko Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzea, eragindako eremuan hautematen diren ezberdintasunetara egokituta eta genero-arrakalak murrizteari dagokionez duten eragina berrikusita.
- 3.4.8 Bizkaiko Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzea, eragindako eremuan hautematen diren ezberdintasunetara egokituta eta genero-arrakalak murrizteari dagokionez duten eragina berrikusita.

3.5 helburua. Genero-ikuspegia txertatu, ikuspegi intersektionala kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztien eta haren Sektore Publikoaren informazio- eta komunikazio-ekintza osoan – barnekoan zein kanpokoan–.

- 3.5.1 Berdintasunerako komunikazioari buruzko gida bat egitea, ikuspegi intersektionalarekin, Sail guztien eta foru-erakundeen informazio- eta komunikazio-ekintza osoan aplikatzeko.
- 3.5.2 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin zuzenean koordinatuta, jarraibide bat prestatzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa bermatzeko edozein motatako komunikazioetan, barnekoetan nahiz kanpokoetan, ahozko, idatzizko edo ikonografiazko informazioan, paperezko euskarrian, ikus-entzunezkoetan edo euskarri digitalean, bai eta erabilitako web-plataformetan eta sareetan eta publizitatean ere.
- 3.5.3. Edozein komunikaziotan emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa bermatzen duen jarraibidearen betetze-maila ebaluatzea.
- 3.5.4 Berdintasunari buruzko programak, jardunaldiak, kongresuak eta bestelako prestakuntza- edo informazio-jarduerak bultzatzea, intersektionalitate-printzipioa kontuan hartuta.
- 3.5.5. Sektore bakoitzean emakumeek eta gizonen bizi duten egoera desorekatua ikusaraztea, bai eta desberdintasunak murrizteko edo ezabatze garatzen diren neurriak ere.
- 3.5.6. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren Sektore Publikoaren barne- eta kanpo-komunikazioetan.
- 3.5.7 Bizkaiko Foru Aldundiak bere zerbitzuak ikusarazteko eta hurbiltzeko sortutako aplikazio informatikoaren hizkuntzan, irudietan eta diseinuan genero-ikuspegia txertatzea.

3.6 helburua. Ordezkaritza orekatua bermatu ordezkaritzako eta parte-hartze organoetan.

- 3.6.1 Ordezkaritza orekatua sustatzea batzordeen, lan-mahaien, epaimahaien, epaimahaien eta pertsona anitzeko beste edozein organoren titularren izendapenean.
- 3.6.2 Bizkaiko Foru Aldundiko partaidetza-organoen eta -espazioen osakerari buruzko genero-analisia egitea, Bizkaiko Partaidetza Mapan sexuaren arabera bereizitako datuak lortuz.
- 3.6.3 Herritarren parte-hartzearen arloan antzemandako genero-arrailek zuzentzeko neurriak identifikatzea, hala badagokio, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan.

4. PROGRAMA. SAILEN ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOAREN ARTIKULAZIOA ETA HOBEKUNTZA

4.1 helburua. Barne Koodinazio egokia bermatu Foru Aldundian eta haren Sektore Publiko Foralean

- 4.1.1 Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasunaren arloko koordinaziorako barne-egiturekin (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea, Sailarteko Talde Teknikoa-Berdintasuna Taldea eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko batzordeak) koordinazio hobetzeko prozesu estrategiko bat eta lan-tresnak diseinatzea.
- 4.1.2 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea deitzea eta koordinatzea.
- 4.1.3 Sailarteko Talde Teknikoa - Berdintasuna Taldea deitzea eta koordinatzea.
- 4.1.4 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sail barruko batzordeak deitzea eta koordinatzea.
- 4.1.5 Ahdun Nagusiaren Kabineterekin lanerako eta koordinaziorako gune egonkor bat sortzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren gidalerro estrategikoak berdintasun-printzipioekin lerrokatzea.

4.2 helburua. Erakunde arteko koordinazio egokia bermatu

- 4.2.1 Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarearen eredia diseinatzea eta ezartzea.
- 4.2.2 Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sareko egiturak eta organoak martxan jartzea.
- 4.2.3 Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sareko berdintasun-teknikariekin lan egiteko gunea martxan jartzea.
- 4.2.4. Udalei laguntza ekonomikoa ematea berdintasun-politikak ezarri eta garatzeko, bereziki udalerrri txikiei.
- 4.2.5 Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarearen lanerako plan operatiboa egitea urtero, Berdintasunerako Foru Planarekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren helburu estrategikoekin bat etorritz.
- 4.2.6 Lurralde Sarearen jardueraren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- 4.2.7 Autonomia-esparruko koordinazio-egituretan parte hartzea –Emakunde, Eudel–, bereziki indarkeria matxistaren arloko tokiko berdintasun-politiken eta politiken garapenarekin zerikusia dutenetan.

4.2 II. ARDATZA. AHALDUNTZE FEMINISTA

“Emakumeen ahalduntzea” terminoa, berdintasunerako eta ekitaterako estrategia gisa, sendotu egin zen Nazio Batuen Emakumeen IV. Mundu Konferentzian, Pekinen (1995), erabakiak hartzeko eta boterea eskuratzeko prozesuetan emakumeen parte-hartzea areagotu zela adierazteko. Hala, Pekingo Ekintza Plataformak honako hau ezarri zuen: *“Emakumeek eskubide bera dute gai publikoen kudeaketan parte hartzeko eta, parte-hartze horren bidez, lehentasun politikoak birdefinitzen laguntzeko, programa politikoetan gai berriak sartzean eta gai politiko orokorrei buruzko ikuspuntu berriak eskaintzean”*. Gizartean emakumeak ahalduntzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzera eta emakumeek bizitza publikoaren eta pribatuaren esparru guztietan parte hartzea zailtzen duten oztopoak ezabatuz bideratutako programa da, arlo ekonomiko, sozial, kultural eta politikoan erabakiak hartzeko prozesuan parte-hartze osoa eta berdintasunezkoa izanik.

189 Estatu Kidek Pekingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma onartzea ibilbide-orri bat izan zen genero-berdintasuna lortzeko, eta emakumeen ahalduntzea banakako eraldaketarako tresna gisa eta genero-berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintza gisa hartu zen, emakumeen ahalduntzea politika publikoen helburu estrategiko gisa planteatzera behartzen zuena.

Ordutik, ildo horretan aurrera egin da nazioartean, Garapen Jasangarrirako egungo 2030 Agendara iritsi arte. Agenda horrek nazioarteko komunitatearen konpromisoa bultzatzen du, genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea lortzeko, 5. Helburuaren bidez, eta zeharka beste helburu batzuen bidez.

Duela urte batzuetatik hona, administrazio publikoak lanean ari dira emakumeen eta neskatoen aurkako diskriminazioa ezabatzeko eta berdintasuna lortzeko bizitzaren eremu guztietan, espazio publikoan eta pribatuan. Aurrera egin da legegintza-arloan, emakumeek lan-merkatuan eta ekonomian duten parte-hartzean, botere-espazioetan duten ordezkartzan, indarkeria matxistaren arloko identifikazioan eta esku-hartzean eta abar. Baina aurrerapen horiek oraindik ez dira nahikoak eta astiro egiten dute aurrera. Oraindik ere badira desberdintasun-maila nabarmenak, honako hauetan ikusten direnak: emakumeek lan duina lortzeko dituzten zailtasunak, soldata-arrakala, etxeko eta zaintza-lanen banaketan dagoen desoreka eta gizonek zaintza-erantzukizunak beren gain ez hartzea, boterea erabiltzean eta batzuen eta besteen erabakiak hartzean duten ordezkartza desberdina, aberastasunaren banaketa desberdina, pobrezia feminizazioa edo indarkeria matxista, besteak beste.

Gainera, ikusten ari gara desberdintasun horiek guztiek modu desberdinean eta desparekotasunez eragiten dutela bai emakumeengan bai neskeengan, kontuan hartzen direnean sexuaz haraindiko diskriminazioaren egiturazko beste dimentsio batzuk, hala nola adina, jatorria, etnia, sexu-genero aniztasuna, desgaitasuna, maila sozioekonomikoa edo egoera administratiboa, besteak beste.

Bizkaiko Lurralde Historikoan ere gizonen eta emakumeen artean dagoen egiturazko desberdintasun-egoera horren aurrean, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromiso sendoa hartzen du emakumeen ahalduntzarekin, Bizkaiko emakumeen eskubideak bermatzeko baldintzak bultzatuz, ikuspegi intersektionalarekin. Era berean, ahalduntzea indarkeria matxistari aurrea hartzeko, aurre egiteko eta erantzuteko beharrezko tresna dela jotzen du, indarkeria hori baita genero-desberdintasunaren eta -diskriminazioaren erakusgarri nagusia.

Alde horretatik, Bizkaiak bere gain hartzen du ahalduntze feminista erraztuko duten baliabideak eta tresnak dituen lurraldea izateko erronka, emakumeei gizonetikiko berdintasun-posizio baterantz aurrera egiten lagunduko dieten prozesu pertsonalak eta kolektiboak bultzatuz. Horretarako, emakumeen ahalduntzearen arloko lan-agenda sendotzeko konpromisoa hartzen du, eta bere jarduera bideratuko du agindu arauemaileak betetzera, bere eskumenen esparruan, Bizkaiko emakumeen eta neskatuen giza eskubideen erabilera bermatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko.

Plan honek ahalduntze feministari egiten dio erreferentzia, boterea eskuratzeko prozesu gisa, aldaketa indibiduala eta ekintza kolektiboa barne hartzen dituena, eta emakumeen mendeko posizioa errepikatzen duten eta gizonen eta emakumeen arteko harreman desberdinak mugatzen eta betikitzen dituzten prozesuak eta egiturak funtsean aldatzea dakarrena. Dimentsio bikoitza duen prozesua da. Alde batetik, mendekotasun egoeraz eta emakumeek beren bizitzak modu autonomoan antolatzeke duten botereaz jabetzea, autoestimua sendotuz, konfiantza areagotuz, protagonismoa hartuz eta bizitza autonomo eta duina lortzeko estrategiak eta gaitasunak sendotuz. Eta, beste alde batetik, dimentsio politikoa, sareak eraikiz, mobilizazio kolektiboa eginez eta haien partaidetza sozial eta politikoa bultzatuz, baliabideak eskuratzeko eta kontrolatzea, aitortzea eta erabakiak hartzeko lekuetara iristea, bizitzaren arlo guztietan, ekonomikoan, juridikoan, soziokulturalean zein politikoan. Ahalduntzearen bi dimentsioetarako baldintzak bultzatu eta bermatu behar dira, gizartea berdintasunezkoago bihurtzeko, pertsona guztien eskubideen erabilera eta justizia soziala bermatuz.

Horrek guztiak prozesu ez-lineala eta egituratua osatzen du, ahalduntze-prozesu feminista deitzen duguna Planaren ondorioetarako; izan ere, berdintasunaren interes estrategikoak artikulatzea du helburu, eta interes horiek sortzen dira egiturak zalantzan jartzen eta eraldatzen direnean eta emakumeek gizartean duten posizioa eta diskriminazio eta mendekotasun horren oinarri diren eguno antolaketa-moduak aldatzen direnean.

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat jarduera egin ditu emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa babesteko prozesuetarako. Egungo lanari jarraipena emanez, plan honek bi lan-programa jasotzen ditu: lehenengo programak emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa babestera bideratzen ditu bere helburuak eta neurriak, eta bigarren programak, berriz, emakumeen ahalduntze soziopolitiko eta emakumeen eta feministen elkarte-mugimendua babestera.

Ahalduntze indibidual eta kolektiboaren arloan, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzak, batez ere, balio-aldaketa sustatzen duten sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egiteaz gain, ibilbide luzea egin du emakumeen ahalduntzea eta berdintasunaren sustapena sustatzera bideratutako jarduerak sustatzen, emakumeen mugimendu feministak eta elkarte-mugimenduak zein irabazi-asmorik gabeko erakundeek egindakoa.

Hurrengo laurtekorako erronka gisa, lan hori jarraituz eta hobetuz, prozesu horietan interseksionalitatearen printzipioa integratzeko helburua ezarri da, Bizkaiko emakume eta neska guztien ahalduntzea bultzatzeko. Kontua da kontuan hartzea nola eragiten duten beste diskriminazio-mekanismo eta -egitura batzuek emakumeengan, generoaz gain beste diskriminazio-faktore batzuk daudenean.

Gainera, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzak proposatu du diskriminazio interseksionaleko egoeran dauden emakumeen errealitateen eta beharren ezagutzan sakontzea, foru-politiken bidez emakumeen ahalduntzea errazteko eta ezagutza hori Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren proiektuen eta jardueren diseinuan txertatzeko. Horretarako, funtsezkoa izango da diagnostiko-azterlanak egitea, aztertutako eremuei buruzko ezagutza handiagoa izateko eta zerbitzuen, programen eta proiektuen lan-ildo eta/edo egokitzapen berriak identifikatzen laguntzeko, ikuspegi interseksionaletik.

Ahalduntzearen dimentsio politikoari erreparatuta, Bizkaiko Foru Aldundiak, hurrengo urteetan, aktiboki lan egiten jarraituko du emakumeen partaidetza soziopolitiko eta ahalduntzea bultzatzeko eta bultzatzeko. Hala, VI. Plan honetan berariazko programa bat jasotzen da, emakumeen ahalduntze soziopolitiko, emakume-elkarteak eta Bizkaiko mugimendu feminista babesteko. Programa horren helburu nagusiak dira, batetik, emakumeen elkarteak eta elkarte feministak indartzen eta gaitzen laguntzea, eta, bestetik, emakumeen elkarte-mugimenduak eta mugimendu feministak foru-politika publikoetan parte hartzeko eta eragiteko espazio bat bermatzea, ikuspegi interseksionala ere kontuan hartuta.

Horrek fokua jartzeko bi erronka garrantzitsu dakartza: baliabideak eta ahaleginak. Alde batetik, gaikuntzarako eta eragin politikorako gune bat sortzea elkarteentzat, aurreko urteetan nahiz plan honen diagnostiko-prozesuan eta Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluan bertan egindako eskaerei erantzuteko. Kontua da gaikuntza-gune bat bultzatzea, parte-hartzea sustatzeko eta berdintasunarekiko konpromiso handiagoa lortzeko, ikuspegi feminista eta interseksionaletik.

Eta, bestetik, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua sendotzea, berdintasunerako foru-politiken diseinuan, garapenean, jarraipenean eta ebaluzioan erreferentzia- eta partaidetza-gune gisa, eta, bereziki, Bizkaiko emakumeen interes estrategikoak defendatzeko eta emakumeen elkartegintza-mugimenduaren eta mugimendu feministaren parte-hartzea sustatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren politika publiko guztietan eragiteko.

Erronka horiek kontuan hartuta, VI. Foru Planak ahalduntze feministaren arloan jasotzen dituen helburu estrategikoak honako hauek dira:

5. programa. Emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboari babesak ikuspegi feminista batetik

5.1 helburua. Ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzen duten prozesuak sortu eta sendotu

5.2 helburua. Diskriminazio interseksionaleko egoeran dauden Bizkaiko emakumeen errealitateak eta beharrak ezagutu, foru-politiken bidez haien ahalduntzea errazteko.

5.3 helburua. Emakumeek kulturaren egindako ekarpenei ikusgarritasuna eman eta emakumeen memoria historikoa berreskuratzea sustatu.

6. programa. Emakumeen eta mugimendu feministaren ahalduntze soziopolitikoari babesak

6.1 helburua. Elkarte-mugimendu feminista eta emakumeena indartzen eta gaitzen lagundu

6.2 helburua. Emakumeen elkarte-mugimenduak eta mugimendu feministak foru-politika publikoetan parte hartzeko eta eragiteko gune bat bermatu, ikuspegi interseksionalek

Ondoren, helburu estrategikoak betetzeko proposatutako neurriak zehaztuko dira.

5. PROGRAMA. EMAKUMEEN AHALDUNTZE INDIBIDUAL ETA KOLEKTIBOARI BABESA IKUSPEGI FEMINISTA BATETIK

5.1 helburua. Ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzen duten prozesuak sortu eta sendotu

- 5.1.1 Elkarre-mugimendu feministari eta emakumeen mugimenduari zuzendutako dirulaguntzen deialdia egitea urtero.
- 5.1.2 Irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzen deialdia egitea urtero.
- 5.1.3 Sentsibilizazio-kanpainak bultzatzea, berdintasunaren arloko lorpenak eta erronkak ikusarazten laguntzeko.
- 5.1.4 Diskriminazio interseksionaleko egoeran dauden emakumeak ahalduntzeko ekimenak babestea.
- 5.1.5 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzan aldian-aldian berrikustea ahalduntzera bideratutako proiektuak, programak eta ekimenak, irisgarritasun unibertsala txertatzeko, eta, horrela, desgaitasuna duten emakumeen sarbidea, ulermena eta parte-hartzea bermatzeko, besteak beste.

5.2 helburua. Diskriminazio interseksionaleko egoeran dauden Bizkaiko emakumeen errealitateak eta beharrak ezagutu, foru-politiiken bidez haien ahalduntzea errazteko.

- 5.2.1 Emakume migratuen eta arrazializatuen parte-hartzeari buruzko analisi/diagnostikoa egitea: ahalduntze-estrategiei, gizarte-antolamenduari eta sare komunitarioei buruzkoa, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan.
- 5.2.2 Programa, proiektu edo neurri berriak diseinatzea, edo daudenak egokitzea emakume migratuen eta arrazializatuen parte-hartzeari buruzko azterlan diagnostikoan identifikatutako behar eta erronketara.
- 5.2.3 Bizkaiko emakume transexualen errealitateari, beharrei eta oztopoei buruzko azterketa/diagnostikoa egitea, diskriminazio- eta indarkeria-egoerak detektatuz, Dibertsitateko eta Lankidetzarako Zuzendaritzarekin lankidetzan.
- 5.2.4 Proiektu/jarduera berriak diseinatzea edo daudenak egokitzea Bizkaiko emakume transexualek dituzten behar eta oztopoetara, jasandako diskriminazio eta indarkerien eragina aztertu ondoren.
- 5.2.5 Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren zerbitzu, programa, proiektu eta jardueretan parte hartzen duten emakumeen errealitate eta beharrak ikuspegi interseksionaletik aztertzea, eta koordinazio-egituretan egiten den lanean txertatzea.
- 5.2.6 Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren zerbitzuak, programak, proiektuak eta jarduerak egokitzea, egindako azterketaren emaitzak kontuan hartuta.

5.3 helburua. Emakumeek kulturaren egindako ekarpenei ikusgarritasuna eman eta emakumeen memoria historikoa berreskuratzea sustatu.

- 5.3.1 Emakumeen memoria historikoa ikusarazteko eta berreskuratzekeo proiektuak gauzatzeko.
- 5.3.2 Kultura-elkarteen eta ikastetxeen artean emakumeen memoria historikoa berreskuratzekeo proiektuak zabaltzeko ekintzak egitea.

6. PROGRAMA. EMAKUMEEN ETA MUGIMENDU FEMINISTAREN AHALDUNTZE SOZIOPOLITIKOARI BABESA

6.1 helburua. Elkarte-mugimendu feminista eta emakumeena indartzen eta gaitzen lagundu

- 6.1.1 Emakumeen elkarreentzako eta elkarte feministentzako gaikuntzarako eta eragin politikorako gune bat sortzea, plan honen ardatzak azpimarratuz ekintza espezifikoeekin.
- 6.1.2 Ahalduntzeko ekintza espezifikoa sortzea indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakume-elkarteei, indarkeriaren ardatza konpontzeko programarekin lotuta.

6.2 helburua. Emakumeen elkarte-mugimenduak eta mugimendu feministak foru-politika publikoetan parte hartzeko eta eragiteko gune bat bermatu, ikuspegi intersektionaletik

- 6.2.1 Bizkaiko Emakumeen Partaidetza Kontseiluaren koordinazioa eta jarraipena urtero kudeatzea.
- 6.2.2 Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren funtzionamenduan diskriminazio intersektionalaren eta irisgarritasun unibertsalaren ikuspegia txertatzea.
- 6.2.3 Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua osatzen duten emakume-elkarteei baliaabideak ematea, haien parte-hartzea bultzatzeko.
- 6.2.4 Bizkaiko Emakumeen Partaidetza Kontseiluaren jarraipena eta ebaluazioa ikuspegi intersektionaletik egiteko tresna bat diseinatzea eta ezartzea.
- 6.2.5 Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren jarduerari buruzko urteko txostena egitea.

4.3 III ARDATZA. BERDINTASUNA GARAPEN IRAUNKORREAN

Ardatz honen esparruan, genero-harremanak garapen jasangarrirako ezinbesteko aldagai gisa txertatzeko beharrari heltzen zaio, 4/2018 Foru Arauaren III. Tituluko I. Kapitulua, zehazki, 50. artikuluan ezartzen duen bezala: *“Emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu bat da garapen iraunkorrerako, eta, zeharkako izaera duenez, iraunkortasunaren gizarte-, kultura-, ekonomia-, eta ingurumen dimentsioetara ere hedatzen da. Horretarako, Bizkaiko foru-sektore publikoak, interseksionalitatea kontuan hartuta, genero ikuspegia txertatuko du diseinatu, ezarri, kontrolatu eta ebaluatzen dituen politika sektorial guztietan, eta, bere eskumen-eremuetan, neurri bereziak hartuko ditu emakumeen eta gizonen berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko, diskriminazio mota guztiak ezabatzeko eta indarkeria matxista desagerrarazteko”.*

Bizkaiko Foru Aldundian garapen jasangarriko helburuak garatzeko estrategia legegintzaldi honetarako ibilbide-orri baten bidez hedatzen da. Aginte-plan hori 2019-2023 aldirako Bizkaia Egiten strategiaren inguruan egituratuta dago, eta bertan 120 jarduera jasotzen dira, lau eremutan garatuak: pertsona eta aukera-berdintasunarena, enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzearena eta hobetzearena, mugikortasunarena eta iraunkortasuna eta kudeaketa modernoarena eta Kudeaketa moderno eta irekian genero-ikuspegia sartzea Gobernu Onaren ardatzean lantzen denez, ardatz hau hiru programaren inguruan egituratzen da, eta programa horiek lehenetsuneko helburuak egituratzen dituzte, gainerako lan-esparruekin bat datozenak.

Horretarako, strategiaren diseinuan ekonomia feministaren printzipioak kontuan hartzeko beharretik abiatzen da; izan ere, ekonomiaren funtzionamendua eta gizonen eta emakumeen eragile ekonomiko eta politika ekonomikoen subjektu gisa duten posizio desberdina azaltzen dituzte. Ekonomia feministaren ezaugarria bizitzaren iraunkortasuna gizarte-sistemaren azterketaren erdigunean jartzea da, eta, beraz, ikuspegi horretatik abiatuta, funtzionamendu ekonomikoaren helburua ez da kapitalaren erreprodukzioa, bizitzaren erreprodukzioa baizik. Begirada ez dago baliabideen esleipen perfektuan, bizitzari eusteko eta hura erreproduzitzeko hornikuntza hobean baizik; horregatik, banaketaren gaia du kezka nagusizat, eta, bereziki, genero-desberdintasuna berdintasun sozioekonomikoa lortzeko beharrezko elementu gisa nola aldatu behar den aitortu, identifikatu, aztertu eta proposatzea.

Esparru horretan, desberdintasunaren egiturazko azterketarako funtsezko kontzeptu bat garatu da, hala nola zaintzaren ekonomiarena, pertsonen bizi diren gizartean egunero bizirauteko beharrezkoak diren jarduera eta praktika guztiak aipatuz, besteak beste, nor bere burua zaintzea, beste pertsona batzuk zuzenean zaintzea, zaintza egiteko aurrealdintzak betetzea (etxea garbitzea, elikagaiak erostea eta prestatzea) eta zaintzaren kudeaketa (ordutegiak koordinatzea, hezkuntza zentroetara eta beste erakunde batzuetara lekualdatzea, ordaindutako zaintzaileen lana gainbegiratzea, besteak beste). Zaintzak mendetasuna duten pertsonen beharrei erantzutea ahalbidetzen du, haien adinagatik edo haien baldintza eta gaitasunengatik mendeko direnen beharrei, bai eta zaintza hori beren buruari eman liezaiketenen beharrei ere.

Zaintzaren ideia ekonomiarekin lotzeak berekin dakar balio ekonomikoa sortzen duten edo sortzen laguntzen duten zaintza-elementuak bi helbururekin nabarmentzea: lehenik eta behin, zaintza-lanen rol sistemikoa ikusaraztea egungo gizartearen dinamika ekonomikoan, eta, bigarrenik, zaintzak antolatzeko moduak emakumeen bizitza ekonomikoan dituen inplikazioen berri ematea. Ildo horretan, ekonomia feministak ere lagundu du pobreziaren gaiari buruzko eztabaidetan, ikuspegi kontzeptual eta enpirikotik, eta pobreziaren dimentsio anitzak kontuan hartzearen garrantzia azpimarratu du, moneta-kontzepzioetatik urrunduz eta denbora-pobreziaren dimentsioa txertatzeko beharra nabarmenduz.

Horregatik, ardatz honen esparruan definitutako lehendabiziko erronka, pertsonen bizibaldintzak eta aukera-berdintasuna hobetzeko ezinbesteko baldintza gisa, programa bat garatzea da, azterketa-prozesu sakon bat egitera bideratua, Bizkaiko Lurralde Historikoan ekonomia feministaren eta zaintza-lanen aplikazioaren praktika definitu ahal izateko, zaintza-lanei eta horien inplikazioei buruzko gaikuntza-, gogoeta- eta diagnostiko-prozesu bat eginez. Foru Sektore Publikoaren politikak, zaintza-lanen ekonomia feministaren arloko lan-ildo egonkor bat diseinatuz eta foru sailekin zaintza-lanen arloko hausnarketa-, gaikuntza- eta erantzunkidetasun-prozesuak ezarriz; hori guztia Bizkaiko denboren gizarte-antolamenduaren azterketan oinarrituta, zaintza-denborak, ordaindutako lana, bizitza pertsonala eta parte-hartzea birbanatzeko aukerak baloratzeko helburuarekin.

Funtsezko beste erronka bat da genero-ikuspegia aplikatzea enpleguaren eta jarduera ekonomikoaren ardatzari dagozkion garapen jasangarriko helburuak ezartzean, non beharrezkoa baita emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzeko programa bat garatzea, batez ere pandemiak eragindako ondorioen esparruan.

2020ko bigarren hiruhilekoan, Bizkaiko emakumeen langabezia-tasa, INEren datuen arabera, %16,34koa izan zen, gizonezkoen langabezia-tasa baino ia lau puntu altuagoa, eta 2019ko hiruhileko berekoa baino hiru puntu altuagoa. COVID-19ak sortutako krisia neurritz kanpo ari da eragiten oso feminizatuta dauden sektoreetan: Bizkaiko ostalaritzak, Lanbideren datuen arabera, 2020ko bigarren hiruhilekoan 1,61eko feminizazio-indizea zuen, saltokiak 1,58koa eta etxeetako jarduerak 11,24koa. Feminizazio-indize handiena duen etxeko zaintza-lanen sektorea da, halaber, Gizarte Segurantzari alta emanda ez dauden pertsonen kopuru handiena duena, EJSN eskalako soldatarik txikiak dituen eta langabezia-prestaziorako eskubiderik sortzen ez duen bakarra; beraz, krisiaren ondorioek neurritz kanpo eragiten diete. Oro har, nahiz eta emakumeen langabeziak eragin handiagoa izan, 2020an kontratatutako pertsona guztietatik %48 soilik izan ziren emakumeak, baina lanaldi partzialeko kontratuen %66 izan ziren. Pandemiaren ondoriozko zaintza-kargen hazkundeak zaildu egiten du emakumeek enplegua lortzea eta, bereziki, lanaldi osoko enplegua lortzea.

Hori dela eta, hurrengo laurtekorako helburu gisa planteatu behar da norberaren eta besteren konturako enplegua lortzeko genero-arrailek murriztea, eta, besteak beste, enplegua sustatzeko programetan bereizketa bertikal eta horizontalaren diagnostikoa egitea, berdintasunerako estrategia bat diseinatzeko, COVID-19ak zaintza-lanekin zerikusia duten sektoreetan lan egiten duten pertsonengan dituen ondorioak arintzeko neurri espezifikoak hartzea, eta zaurgarritasun handiko egoeran dauden emakumeentzako ibilbide espezifikoak dituzten enplegu-programak sortzea.

Gainera, diagnostikoak agerian uzten du emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzea bereziki beharrezkoa dela landa-ingurunean; izan ere, Eustatek 2016an argitaratutako Euskal Landa Inguruneke Emakumeei buruzko azken txostenaren arabera, eremu horretan bizi diren emakumeek hiri-eremuan bizi diren emakumeek baino ordubete gutxiago ematen dute prestakuntza eta/edo ordaindutako enpleguan, 2012tik 2016ra bitartean EAEko landa-eremuko emakumeek etxeko eta COVID-19 krisia maila globalean zaintza-karga handiagoak sortzen ari denez, beharrezkoa da emakumeen eta gizonen arteko genero-arrakalak ezagutzea eta murriztea Bizkaiko landa-ingurunean, ordaindutako enpleguari, zaintzari eta emakumeen parte-hartze soziopolitikoari emandako denboretan, Bizkaiko landa-inguruneetan bizi diren emakumeen baldintzei eta egoerei buruzko diagnostikoa eta ekintza-plana eginez, elkartzeko, parte hartzeko eta elkarriketarako espazioak sortuz administrazioaren, ingurune horretako emakumeen eta feministen elkarrean eta/edo beren kontura edo besteren kontura lan egiten duten landa-eremuko emakumeen interesak ordezkatzeko dituzten erakundeekin edo kolektiboekin artean, eta lehen sektorearekin zerikusia duten ekoizpen-sektore guztietan emakumeen elkarlan-, elkartze- edo kooperazio-egiturak sustatuz; horrela, Iraunkortasunari eta Inguruari buruzko 4/2018 Foru Arauaren 60. artikuluan jasotako aginduei erantzun zaitzaie.

Azkenik, hirugarren erronka zaintza-lanei mesede egingo dien eta genero-ikuspegia aintzat hartuko duen lurralde-diseinua sustatzera bideratutako programa garatzea da. Lurralde-antolamenduak berdintasunerako funtsezko alderdiak zehazten ditu, hala nola jarduera ekonomikoak, udalaz gaindiko ekipamenduak eta azpiegiturak. Giltzarria da, beraz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko baliabideak eskuratzeari eta eguneroko bizitza erraztuko duten azpiegiturak eta ekipamenduak izateari dagokionez. Genero-ikuspegia lurralde- eta hiri-plangintzan sartzeak berekin dakar espazio publikoak, ekipamenduak, etxebizitza eta abar familia zaintzeko eguneroko lanak eta ordaindutako lana ahalegin eta zailtasun gutxiagorekin egin ahal izateko moduan pentsatzea. Halaber, espazio publikoak eta garraioak seguruak izan behar dute, eta kalteberatasun-egoeran dauden emakumeen espazio- eta hiri-beharrak kontuan hartu behar dira, baita sarbide ekonomikoko mugak ere, herritar guztien bizi-kalitatea hobetuko duten lurralde eta hiri bidezkoagoak eta seguruagoak sortzen lagunduz. Kontuan hartuta zaintzaren kontzeptua eta horrek lurraldearen antolamenduan dituen inplikazioak funtsezko elementuak direla genero-ikuspegitik, lurralde-antolamenduan berdintasunari heltzeko zaintzaren kontzeptua izan behar du ardatz nagusi, zaintzak lurraldearen plangintzan, eraikuntzan eta kudeaketan dituen inplikazioak aztertuz.

Bizkaian, Bilbo Metropolitarrako Lurralde Plan Partzialaren garapenean, genero-ikuspegia txertatzeko lan-prozesu bat garatu zen, prozesu parte-hartzaileak barne hartuta; beharren inkesta bat egin zen, mugikortasunaren, garraioaren, segurtasunaren eta ekipamenduen arloan 18 eta 70 urte bitarteko emakumeei telefonoz egindako 1.101 elkarrizketaren bidez; eta hedapen-jardunaldi bat egin zen, non genero-ikuspegia berariaz sartu zen. Beraz, etorkizuneko erronka jardunbide egoki hori gainerako lurralde-plan partzialetara zabaltzea da, hura aldatzen bada, eta genero-ikuspegia Hiri Antolamenduko Plan Orokorretan sar dadin sustatzea. Gaur egun, Bizkaian, lurraldeko 112 udalerrietatik 41ek garatu dituzte ildo horretako prozesuak. Hiri-plangintzaren arloan, Bizkaiko Foru Aldundiak bere eginkizunen artean sartzen ditu zazpi mila biztanletik beherako udalerrietako plangintza orokorra eta hiru mila biztanletik beherako udalerrietako plangintza eta garapena. Azpiegitura Sailaren 2019ko datuen arabera, 80 udalerrik arau subsidiarioak dituzte oraindik. 80 horietatik 54k 3.000 biztanle baino gutxiago dituzte eta 13k 3.000 eta 7.000 artean. Beraz, 67 udalerritan garatu daitezke genero-ikuspegia

txertatzeko estrategia koordinatuak, orain arte egindako lana berrikusiz, kalitate partekatuko eredu bat diseinatuz eta hura diseinatzen eta ezartzen parte hartzen duten pertsonak gaitzeko prozesuak diseinatuz.

Mugikortasunaren esparruan, Bizkaiko Lurralde Historikoko mugikortasun-sistemaren aukerak eta ezaugarriak emakumeen beharretara hobeto egokitu behar dira, eta Bizkaiko Lurralde Historikorako mugikortasun jasangarriaren diagnostikoa eta plana egin behar dira genero-ikuspegitik, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenen esparruan.

Ardatz honen jarraipena egiteko honako programa eta helburu hauek proposatzen dira:

7. programa. Zaintza-lanen ekonomia feministaren garapena

7.1 helburua. Zaintza-lanen ekonomia feminista aplikatzeko praktika definitu Bizkaiko Lurralde Historikoan

7.2 helburua. Bizitegi-bazterketako zerbitzuak emakumeen beharretara egokitu.

8. programa. Emakumeen autonomia ekonomikoaren sustapena

8.1 helburua. Norberaren eta besteren konturako enplegua lortzeko genero-arrailak murriztu

8.2 helburua. Emakumeen eta gizonen arteko genero-arrakala murriztu eta ezagutza areagotu landa-ingurunean, ordaindutako enpleguan, zaintza-lanetan eta emakumeen parte-hartze soziopolitikoan emandako denboretan.

8.3 helburua. Emakumeen eta nesken bazterketa bertikala eta horizontala eragotzi kirol federatuan eta eskola kirolean.

9. programa. Zaintza-lanetarako lurralde-diseinua genero-ikuspegiarekin

9.1 helburua. Emakumeen beharrei eta eskaerei erantzuteko neurriak jasotzen dituzten LPP eta HAPOen kopurua handitu.

9.1 helburua. Emakumeen beharrei eta eskaerei erantzuteko neurriak jasotzen dituzten Lurralde Plan Partzialen eta Herri-Antolamenduko Plan Orokorren kopurua handitu.

9.2 helburua. Bizkaiko Lurralde Historikoaren mugikortasun sistemaren aukerak eta ezaugarriak emakumeen beharretara gehiago egokitu.

Honako hauek dira helburuak betetzeko proposatutako neurriak:

7. PROGRAMA. ZAINZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTAREN GARAPENA

7.1 helburua. Zaintza-lanen ekonomia feminista aplikatzeko praktika definitu Bizkaiko Lurralde Historikoan

- 7.1.1 Zaintza-lanen ekonomia feministari eta horrek Foru Sektore Publikoaren politiketan dituen ondorioei buruzko gogoeta-diagnostiko-gaikuntza prozesu bat egitea.
- 7.1.2 Lan-ildo estrategiko bat diseinatzea, egonkorra eta iraunkorra, zainketen ekonomia feministaren arloan.
- 7.1.3 Ekonomia feministako politika publikoen arloko ikerketa, trebakuntza, hausnarketa eta ekintzarako laborategi-programa bat sortzea.
- 7.1.4 Foru Sailekin hausnarketa-, gaikuntza- eta erantzunkidetasun-prozesuak garatzea zainketen ekonomia feministaren arloan.
- 7.1.5 Denboraren Bizkaiko gizarte-antolaketa analizatzea, zaintza-denborak, ordaindutako lana, bizitza pertsonala eta parte-hartze soziala birbanatzeko aukerak baloratzeko.

7.2 helburua. Bizitegi-bazterketako zerbitzuak emakumeen beharretara egokitu.

- 7.2.1 Gizarteratzearen arloko foru-esku-hartzeari buruzko gaikuntza-hausnarketa-diagnostiko prozesu bat egitea, ikuspegi feminista eta interseksionaletik.
- 7.2.2 Gizarteratze-zerbitzuetan ikuspegi feminista eta interseksionala duen esku-hartzea ahalbidetuko duten neurriak eta lan-ildoak diseinatzea.
- 7.2.3 Gizarte-bazterketako egoeran dauden emakumeentzako eguneko zerbitzu eskusiboa izatea.

8. PROGRAMA. EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOAREN SUSTAPENA

8.1 helburua. Norberaren eta besteren konturako enplegua lortzeko genero-arrailak murriztu

- 8.1.1 Emakumeek enpresa-sektore zientifiko-teknologikoetan duten presentzia ikusaraztea eta balioestea.
- 8.1.2 Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikitako sozietate publiko bakoitzak emandako zerbitzuen genero-eragina aztertzea.
- 8.1.3 Enplegua sustatzeko programetan bereizketa bertikal eta horizontalaren diagnostikoa egitea eta norberaren eta besteren konturako enpleguan berdintasunerako estrategia diseinatzea.
- 8.1.4 Neurri espezifikoak hartzea –berrorientatzeko eta laneratzeko programa–, COVID-19ak zaintzarekin lotutako sektoreetan lan egiten duten pertsonengan dituen ondorioak arintzeko.
- 8.1.5 Erakunde laguntzaileetako langileek, intersektzionalitate-printzipioa kontuan hartuta, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko beharrezko prestakuntza izateko behar diren neurriak pixkanaka hartzea, laneratzeko prozesuetan genero-ikuspegia txertatu ahal izateko.
- 8.1.6 Berariazko ibilbideak dituzten enplegu-programak ezartzea egoera ahulean dauden emakumeentzat.

8.2 helburua. Emakumeen eta gizonen arteko genero-arrakala murriztu eta ezagutza areagotu landa-ingurunean, ordaindutako enpleguan, zaintza-lanetan eta emakumeen parte-hartze soziopolitikoan emandako denboretan.

- 8.2.1 Bizkaiko landa-inguruneetan bizi diren emakumeen baldintzei eta egoerei buruzko diagnostikoa egitea, eta, gutxienez, honako hauek aztertzea: titulartasuna eskuratzea, norberaren eta besteren kontura ordaindutako enplegua eskuratzea eta horretarako baldintzak, zaintza-kargak eta partaidetza soziopolitikoak.
- 8.2.2 Bizkaiko landa-inguruneetan bizi diren emakumeen baldintzen eta egoerei buruzko plan bat egitea, aurreko diagnostikoan identifikatutako eremu guztietarako helburuak eta ekintzak proposatuta.
- 8.2.3 Baliabide naturalak eta ingurumen-zerbitzuak kudeatzeko ekimenak sustatzea, emakumeen esperientziak balioesteko eta emakumeen parte-hartzea eta lidergoa sustatzeko.
- 8.2.4 Administrazioaren eta landa-ingurune emakumeen elkarten eta elkarte feministen eta/edo norberaren edo inoren kontura lan egiten duten landa-eremuko emakumeen interesak ordezkatzeko dituzten entitate edo kolektiboaren arteko topaketa-, partaidetza- eta elkarrizketa-espazioak sortzea eta dinamizatzea.
- 8.2.5 Lankidetzarako, elkartzeko edo elkarlanerako emakumeen egiturak sustatzea ekoizpen-sektore guztietan, lehen sektorearekin lotuta.
- 8.2.6 Semakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan prestakuntza- eta sensibilizazio-ekintzak garatzea, iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko politiketan genero-ikuspegia eta ekofeminismoaren printzipioak txertatuta.

8.3 helburua. Emakumeen eta nesken bazterketa bertikala eta horizontala eragotzi kirol federatuan eta eskola kirolean.

- 8.3.1 Emakumeen kirol-jarduera eta emakumeek kirolean duten presentzia ikusarazten duten eta emakumeen parte-hartzea sustatzen duten ekintzak eta jarduerak diseinatzea.
- 8.3.2 Kirol federatuari beharrezko laguntza tekniko eta laguntza ematea, berdintasunaren arloko legezko aginduak betetzen direla koordinatzeko.
- 8.3.3 Foru-eskumeneko eskola-kirolean Genero-eraginaren analisia sakontzea.

9. PROGRAMA. ZAINZA-LANETARAKO LURRALDE-DISEINUA GENERO- IKUSPEGIAREKIN

9.1 helburua. Emakumeen beharrei eta eskaerei erantzuteko neurriak jasotzen dituzten LPP eta HAPOen kopurua handitu.

- 9.1.1 Genero-eraginaren aurreiazko ebaluazioa egitea, hirigintza feministan adituak diren taldeen aholkularitzarekin, Lurralde Plan Partzialak berrikusi edo aldatzen diren bitartean.
- 9.1.2 Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako udalerrietako hiri-antolamenduko plan orokorren genero-eraginaren aurreiazko ebaluazioen kantitateari eta kalitateari buruzko diagnostikoa egitea, diseinuaren kalitateari eta neurrien ezarpenari dagokienez.
- 9.1.3 Bizkaiko Lurralde Historikorako berezko HAPOen genero-eraginaren aurreiazko ebaluazioak egitean Kalitate-eredu bat definitzea.
- 9.1.4 Hirigintza feministari eta hirigintzari buruzko gogoeta-, gaikuntza- eta koordinazio-prozesuak diseinatzea genero-ikuspegiarekin, Bizkaiko administrazioaren teknika-erakundeetara zuzenduta, bai hirigintzako arduradunei, bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko arduradunei (prestakuntzak eta topaketa-jardunaldiak, aldizkakoak, ez puntualak).

9.2 helburua. Bizkaiko Lurralde Historikoaren mugikortasun sistemaren aukerak eta ezaugarriak emakumeen beharretara gehiago egokitu.

- 9.2.1 Bizkaibuseko gogobetetasun-inkesten adierazle-sistema bat ezartzea, beren zerbitzuak eguneroko bizitzako hainbat premiatara zenbateraino egokitzen diren ebaluatzeko, bereziki zaintza-lanen ondoriozkoetara, eta zerbitzuen erabileran dauden genero-arrakalen kausak aztertzeko.
- 9.2.2 Jarraipena egitea jakiteko Bizkaibus zerbitzua ematen duten enpresen barneko berdintasun-planak zenbateraino egokitzen zaizkien enpresetan berdintasun-planak egiteari buruz indarrean dagoen araudiari eta 4/2018 Foru Arauaren aginduei.
- 9.2.3 Bizkaibuseko zerbitzuak erabiltzeko genero-arrakalak eta haien beharretara egokitzeko maila identifikatzen dituen memoria egitea, zeharka, memoria osoan.

4.4 IV ARDATZA. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, sexuen eta generoen arteko botere-harremanen bidez garatzen den eredu sozial desberdin eta hierarkikoaren ondorio, kontrolaren eta mendekotasunaren bidez betikotzen dena, eta batez ere emakumeei eta neskatoei eragiten diena.

Mugimendu feministari eta berdintasun-politika publikoen garapenari esker, indarkeria matxista agenda politikoan lehen mailako arazo gisa sartzea lortu da, eta legegintza-aurrerapen garrantzitsuak lortu dira, administrazio publikoek beren eskumenen esparruan lehentasunezko lan-ildoak bideratzeko.

Indarkeria matxista desagerrarazteko lanak araudi- eta eskumen-esparru zabala du gaur egun, indarkeria hori garatzeko. Ardatz hori VI. Planaren esparruan garatzea bat dator Europako Kontseiluaren Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Hitzarmenak (Istanbulgo Hitzarmena) proposatzen dituen neurriekin. Hitzarmen horrek emakumeen aurkako indarkeria honela definitzen du: *“Giza eskubideen urraketa eta emakumeen aurkako diskriminazio mota bat, eta generoan oinarritutako indarkeria-ekintza guztiak izendatzen dira. Emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoak eragiten dizkietenak edo eragin diezazkieketenak, ekintza horiek egiteko mehatxuak, hertsapen edo askatasunik gabe uzte arbitrarioa barne, bizitza publikoan edo pribatuan”*; urraketa horien aurrean eskubide eta erreparazioen ikuspegi bermatzailetik abiatuz, horixe baita Hitzarmen horretan proposatutako eginbide oro inspiratzen duena.

Era berean, 4/2018 Foru Arauak emakumeen aurkako indarkeriatik indarkeria matxistara aldaketa kontzeptual bat planteatzen du, indarkeriaren konplexutasunean aurrera egitea eta zabalago begiratzea ahalbidetzen duena, indarkeria erabiltzen den beste eremu batzuk identifikatuz (*“bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barruko indarkeria, sexu-askatasunaren aurkako indarkeria, salerosketa, sexu-esplotazioa...”*), eragiten dien emakumeen eta nesken aniztasuna, bere jarduketan subjektutzat hartuz indarkeria matxista nozitzen duten emakumeen alabak eta semeak, lehentasunezko kolektiboak edo zaurgarritasun-arrisku handienekoak identifikatuz, bai eta indarkeriaren adierazpideak eta intentsitateak eta indarkeriaren eragina ere, eta diskriminazio-mota anitzen elkargunea kontuan hartuz, aipatutako arauaren hitzaurrean azaltzen den bezala.

Interseksionalitatearen printzipioa zeharkako printzipio gisa sartzek, 4/2018 Foru Arauan proposatzen den bezala, erronka garrantzitsua dakar Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren indarkeriaren arloko politiketarako, indarkeria matxistaren errealitateen, agerpenen eta adierazpenen aniztasunari erantzun behar baitiote.

Bestalde, 4/2018 Arauaren II. Tituluko IV. Kapitulua indarkeria matxista desagerrarazteko Bizkaiko Sektore Publikoaren jarduera-esparrua ezartzen du. Esparru horrek barne hartzen ditu ikerketa, prebentzioa eta sensibilizazioa eta arreta integrala eta babes, eta erronka gisa planteatzen du foru-politika publikoak diseinatzea, jarduera-ildoen arteko ikuspegi integral eta koherente batetik.

Beraz, eta legegintza-aurrerapenek eta gizarteak erakunde publikoei eskatzen dizkieten erronketara egokitze helburuari dagokionez, VI. Plan honek, besteak beste, kontzeptu-esparrua berrikustea eta eguneratzea jasotzen du, eta, horretarako, esparru hauek zabaltzen ditu: aitortutako indarkeriaren adierazpenak –sotil eta normalizatuenetatik muturrekoetaraino–, eta haien jardueren hartzaileak –biktima

diren emakume eta neskatoetatik indarkeria matxistaren biktima izan daitezkeen beste biktima batzuetaraino, biktimarioak eta gizartea oro har, bestak beste—. Hori guztia foru-politiken berrikuspenetik abiatuta, erreparazio-eskubidea eta ikuspegi feminista eta ahalduzko-ikuspegia ezartzeko helburuarekin, garatzen diren jarduketan zeharkako elementu gisa.

4/2018 Foru Arauak, era berean, bere gain hartzen du Bizkaiko Foru Aldundiak bere eskumenak betetzeko dituen betebeharren arteko ardua, eta eskumen horiek betetzean indarkeria matxistako ekintzarik ez egitea ziurtatzen du, eta, era berean, indarkeriarik gabeko bizitza bermatuko duten eta egungo egiturazko indarkeria matxistaren egoera eraldatzeko bidea egingo duten politika publikoak izatea ahalbidetzen du.

Hori guztia ardatz hau osatzen duten lau programen bidez garatuko da.

Lehendabizikoa indarkeria matxistari buruzko ikerketa eta errealitatearen ezagutza sustatzera bideratuko da, foru-politikek indarkeria matxistaren arloan gauden gabe dituzten erroak identifikatzeko eta indarkeriaren eraginari eta ondorioei buruzko ezagutza areagotzeko, indarkeria matxistaren eremuari eta hartzen dituen formei buruzko ikerketa babestuz, datuak biltzeko eta aztertze sistemak aldizka berrikusiz eta eguneratuz, Istanbulgo Hitzarmenaren 11. Artikuluak zehazten duen moduan. Horretarako, Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren kudeaketa funtsezko tresna izango da informazio-sistema bat eraikitzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeria behatzeko, aztertze eta haren jarraipena egiteko gaitasuna izango duena, bai eta arlo horretako politika instituzionalen eragina ere, haren garapenari, ezarpenari eta ondorioei dagokionez, eta ezarritako jarduerak eta baliabideak benetako beharretara egokitzea ahalbidetuko du.


Era berean, ikerketa eta ezagutza areagotzeko beharri dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak aurre egin behar dio indarkeria matxistaren arloko borrokarako estrategia koordinatu bat diseinatu eta ezartzeko erroari, erreparaziorako eskubidearen ikuspegitik, Bizkaiko Foru Sektorre Publiko osorako, esparru kontzeptuala adostuta, Bizkaiko emakume eta neskatoentzako indarkeriarik gabeko bizitzak bermatze aldera, non emakumeen memoria indibidualari eta kolektiboari (biktimak, bizirik atera direnak eta/edo eraldaketa-eragileak), berdin ekingo zaion.

Sentsibilizazio- eta prebentzio-lana balio-aldaketan eragitera bideratutako programa baten bidez egiten da, berdintasunean oinarritutako gizarte-hezkuntzan lan eginez, indarkeria oren oinarrian dauden diskriminazioek eragiten dituzten genero-rolak eta -estereotipoak identifikatuz eta eraldatuz. Horretarako, bi helburu hartzen dira hurrengo laurtekorako erroa gisa: batetik, herritarrek indarkeria matxista mota guztien irismenaz eta eraginaz sentsibilizatzea eta informatzea, eta, bestetik, indarkeria matxistaren modu sotilenak identifikatzeko, kontzientziatzeko eta bideratzeko irizpideak ezartzeko prozesuak sortzea.

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumei eta neskatoei arreta eta babesa emateari dagokionez, funtsezkoa eta estrategikoa da ahalduzko feministaren ikuspegia eta ikuspegi intersektionala sustatzea ezartzen diren esku-hartze eta laguntza prozesuetan, indarkeriaren arloko foru politika publikoetan biktimen erreparaziorako eskubidea txertatuz eta biktima (eskubideen subjektu) izatetik bizirik dagoen izatera igarotzea bermatuko duten lan-ildoak diseinatu. Gizarte-eraldaketako agentea (subjektu politikoa), haien bizi-interes eta -beharretatik abiatuta, haien erreparazioa bermatuz eta aurrez aurre dauden emakumeen berbiktimizazioa saihestuz. Ildo horretan, garrantzitsua da memoriari eta erreparazio sinbolikoari heltzea, biktimak memoria kolektiboan kokatzeko, ahotsa emanez eta erreferenteak sortuz, eta herritarren, erakundeen eta gure gizartean esku hartzen duten gainerako eragileen kontzientzia kritikoa bultzatuz.

Azaldutako guztia prozesu bat da, eta prozesu horretan ezinbestekoa da erakundeen arteko eta erakundeen barruko koordinazioa areagotzea eta hobetzea, bai eta elkarrizketa-espazioak sortzea ere indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzeko, prebenitzeko eta arreta emateko funtsezkoak diren eragileekin.

Proposatutako erronkei heltzeko, honako programa eta helburu estrategiko hauek erabiltzen dira:



Helburu estrategiko horiei heltzeko, honako neurri hauek aurreikusten dira:

10. PROGRAMA. INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETAREN ETA EZAGUTZAREN SUSTAPENA

10.1 helburua. Foru politikek indarkeria matxistaren arloan aurre egin beharreko erronkak identifikatu ikuspegi feminista eta interseksional batetik.

- 10.1.1 Foru Sektore Publikoaren indarkeria matxistaren arloko esparru kontzeptuala, politikak eta antolaketa-eredua definitzea, prebentzioaren, arretaren eta erreparazioaren arloko lehentasunak identifikatuz.
- 10.1.2 Sailek indarkeriaren arloan dituzten eskumenen eta/edo jarduera-eremuen diagnostikoa egitea, Bizkaiko Foru Sektore Publikorako definitutako kontzeptu-esparruarekin bat etorritz.
- 10.1.3 Bizkaiko Foru Sektore Publikorako indarkeria matxistaren arloan borrokatzeko foru-estrategia diseinatzea eta ezartzea.

10.2 helburua. Indarkeria matxistaren intzidentziari eta ondorioei buruzko ezagutza handitu.

- 10.2.1 Indarkeria matxista zer eremutan gertatzen den, nola agertzen den eta horrek zer eragin duen aztertzea eta/edo horri laguntzea, emakumeen eta beste biktima batzuen aniztasuna eta horietan eragina duten diskriminazio-ardatzak kontuan hartuta.
- 10.2.2 Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren adierazleak berrikustea eta eguneratzea, jarduerak, balia bideak eta zerbitzuak emakumeen eta neskatoen beharretara nola egokitzen diren ebaluatu eta hobetu ahal izateko, haien aniztasuna kontuan hartuta.
- 10.2.3 Bizkaiko indarkeria matxistari buruzko informazioa biltzeko, sistematizatzeko eta zabaltzeko tresna birdiseinatzea, erabiltzaileen, herritarren, teknikarien eta ikerketa-eragileen beharretara egokituta.

11. PROGRAMA. INDARKERIA MATXISTA PREBENITZEKO BALIOEN ALDAKETA

11.1 helburua. Biztanleak sentsibilizatu eta informatu indarkeria matxistaren forma guztien intzidentziari eta irismenari buruz

- 11.1.1. Indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazio-kanpainak, -jardunaldiak eta -jarduerak egitea, pertsonen aniztasuna, indarkeria-adierazpenak eta inpaktua ahalik eta gehien ikusarazteko.
- 11.1.2 Kanpoko erakundeak eta gizarte-eragileak prebentzioan eta gizarte-eraginean sentsibilizatzeko proiektu berritzaileak babestea.

11.2 helburua. Indarkeria matxistaren forma sotilenak eta normalizatuenak identifikatzeko eta horien kontzientzia hartzeko prozesuak sortu, eta indarkeria iraunarazten duten egiturak eta sinboloak eraldatu.

- 11.2.1 Indarkeriaren adierazpen normalizatuagoen, sotilagoen edo ezkutukoenen analisiak eta/edo diagnostikoak egitea, interseksionalitateari eta aniztasunari erreparatuta.
- 11.2.2 Indarkeria-adierazpen normalizatuenak, sotilenak edo ezkutukoena identifikatu ondoren, prozesu eraldatzaileak diseinatzea ahalbidetuko duten jarduerak definitzea.
- 11.2.3 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren helburuekin bat datorren lan-estrategia diseinatzea eta garatzea, gizonei eta hurrei beren aniztasunean arreta eskainiz, berdintasuna bultzatzeko, botere-harremanak eteteko eta pribilegio-sistemak deseraikitzeo.

12. PROGRAMA. INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO IKUSPEGI INTERSEKZIONALETIK AHALDUNTZEAREN SUSTAPENA

12.1 helburua. Arreta-sisteman ikuspegi feminista eta interseksionala duen begirada integrala txertatu, biktimen erreperaziorako eta erreparaziorako eskubidea azpimarratuz

- 12.1.1 Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren esparruan egindako gomendioak betetzeko estrategiak eta ekintzak definitzea.
- 12.1.2 Biktimei arreta emateko programetan ahalduntze-ikuspegia, erresilientziaren sustapena, erreparaziorako eskubidea eta ikuspegi komunitarioa txertatzea, emakumeen eta haurren errealtatearen ikuspegi interseksionalarekin.
- 12.1.3 Biktimarengandik bizirik dirauenengana igarotzeko prozesuan lagunduko duten programak/zerbitzuak finkatzea, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta.

13. PROGRAMA. KALTEAREN ERREPARAZIO ESKUBIDEAREN GARAPENA ETA ARTIKULAZIOA

13.1 helburua. Erreparazioaren fokuratzea txertatu Bizkaiko Sektore Publiko Foralaren indarkeria matxistari buruzko politiketan

- 13.1.1 Foru Sektore Publikoan emakumeen ahotsetatik abiatuta erreparazioari, aitopenari eta memoriari buruzko lan-ildo bat garatzeko hausnarketa egitea.
- 13.1.2 Erreparazioaren, aitopenaren eta memoriaren arloan Foru Sektore Publikoko emakumeen ahotsetatik jarduteko jarraibideak definitzea.
- 13.1.3 Indarkeria matxistaren biktimen eta bizirik atera direnen memoria indibiduala eta kolektiboa berreskuratzeko eta indarkeria matxistaren forma guztiak kolektiboki arbuizatzeko ekintzak egitea
- 13.1.4 Bizirik atera diren emakumeekin ahalduntze sozial eta politikorako prozesuen programa pilotu bat sortzea (eraldaketa sozialeko eragileak eta erreferente positiboak), Emakume eta Familia Zerbitzuarekin koordinatuta.
- 13.1.5 Konponketa-lerroan eta kaltea ez errepikatzeko lanetan gizonekin lan egiten duten erakundeekin programak sortzea eta/edo laguntzea.

14. PROGRAMA. INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO KOORDINAZIOAREN HOBEKUNTZA

14.1 helburua. Indarkeria matxistari buruzko koordinazio egiturak eta espazioak handitu eta hobetu Sektore Publiko Foralean

- 14.1.1 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren eta Emakume eta Familia Zerbitzuaren artean lantalde tekniko egonkor bat sortzea eta dinamizatzea, indarkeria matxistaren arloko ildo estrategikoak lerrotzeko.
- 14.1.2 Bizkaiko Foru Sektore Publikoko berdintasun-egituretan (Sailarteko Batzordea, Berdintasuna Taldea eta Sailarteko Batzordeak) indarkeria matxistari buruzko berriazko lan-espazioak sortzea, eskumenen diagnostikoan identifikatutako sailekin.
- 14.1.3 Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarean indarkeria matxistaren arloko koordinazio- eta lan-espazioak sortzea.
- 14.1.4 Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluan indarkeria matxistaren arloko koordinazio- eta kontraste-guneak eskaintzea.
- 14.1.5 Erakundearteko koordinazio-espazioak dinamizatzea eta lan-ildoak proposatzea Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren esparruan.
- 14.1.6 Sexu-esplotaziorako xedez egindako Trafikoari buruzko Plana eguneratzea, garatzea, koordinatzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea.
- 14.1.7 Komunikazio- eta lankidetzeta-bideak ezartzea hirugarren sektoreko eragileekin eta emakumeen elkarre-ehunarekin eta mugimendu feministarekin.



5. NEURRIAK OPERATIBIZATZEN: ADIERAZLEAK, KRONOGRAMA ETA ARDURADUNAK

I. ARDATZA. GOBERNU ONA

1. programa. Konpromiso politikoa handitu

1.1 helburua. Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromiso politikoa zehaztu eta ikusgarritasuna eman.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
1.1.1 Sailen Zuzendaritza Batzordeen bileretan berdintasuneko eduki espezifikoko espazioak sortzea.	2021- 2024	Berdintasunaren arloan lan egiteko berariazko guneak dituzten Sailerako Zuzendaritza Batzordeek bileren kopurua, guztira. Parte-hartzaileen kopurua sexuaren eta bileraren arabera bereizita.	Sail guztiak	Sail guztiak
1.1.2. Zuzendaritza-batzordeetan berdintasun-politiken garapena aztertzea.	2021- 2024	Sailak tratatutako gaien analisia. Sailak Sailarteko Batzordearen esparruan emandako emaitzak.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
1.1.3. Urtero diseinatzen diren politikariei zuzendutako berdintasunaren arloko prestakuntza-guneetan parte hartzea.	2021- 2024	Parte hartutako pertsonen kopurua sexuaren eta sailaren arabera bereizita.	Sail guztiak	Sail guztiak

1.2 helburua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa Indartzea

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
1.2.1. Aldian-aldian Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren beharrak aztertzea eta, hala badagokio, eguneratzea, bere eginkizunak betetzeko egitura egokia izan dezan.	2021- 2024	Egindako analisien kopurua.	Funtzio Publikoaren Zuzendariordetza	Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila
1.2.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren aurrekontuaren eta BFAREN kudeaketa propioko aurrekontuaren gaineko ehunekoa mantentzea edo handitzea, aurreko ekitaldiarekiko, baldin eta oinarrizko zerbitzuak eta prestazioak baldintzatzen dituzten salbuespenezko inguruabarrak gertatzen ez badira.	2021- 2024	Berdintasunerako Organoari esleitutako BFAREN aurrekontuaren ehunekoa.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
1.2.3 Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propioko aurrekontuaren gaineko ehunekoa mantentzea edo handitzea, aurreko ekitaldiarekiko berdintasun-polituketara bideratutako aurrekontuari dagokionez, baldin eta oinarrizko zerbitzuak eta prestazioak baldintzatzen dituzten salbuespenezko inguruabarrak gertatzen ez badira.	2021- 2024	Berdintasun-polituketara bideratutako aurrekontua, urteka.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza

1.3 helburua. Urteko planifikazio operatiboa eta jarraipena handitu eta hobetu.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
1.3.1 Plan honen esparruan urtero egiten diren jardueren jarraipena egiteko tresna diseinatzea.	2021	Jarraipenerako egindako tresna.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
1.3.2 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren jarduerari buruzko urteko memoria egitea.	2021- 2024	Egindako memoria, egindako jarduerak, lortutako emaitzak eta inplikaturako pertsonak deskribatuz.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
1.3.3 Foru Arauaren betetze-maila ebaluatzea.	2022	Egindako ebaluazioa. Ekintzen edo betetako aginduen ehunekoa, prozesuetan eta hastekoetan.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
1.3.4. Urteko plangintza operatiboa egitea eta horren jarraipena egitea berdintasun-politikak koordinatzeko egiturekin.	2021- 2024	Egindako urteko plangintza operatiboen kopurua. Helburuen kopurua plan operatibo bakoitzeko. Ekintzen kopurua plan poperatibo bakoitzeko.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
1.3.5 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzako pertsona bat esleitzea, sail bakoitzari aholkuak emateko.	2021- 2024	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzako langileak aholkularitzarako esleituta dituzten sailen kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza

2. programa. Genero pespektibaren txertaketa langileen kudeaketan

2.1 helburua. Genero-ikuspegia txertatu Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren Sektore Publikoaren langileen kudeaketan.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
2.1.1 Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasun Planean aurrera egiten jarraitzea, langileen politikako jarduera eta neurri guztiak Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planetik bereiz daitezen, Bizkaiko Foru Aldundiaren Barne Berdintasunerako Plana osatuz, FFKZren mende, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren lankidetzarekin, indarrean dagoen araudi autonomikoa eta estatukoa betez.	2021- 2022	Barne planerako batzordea sortuta. Egindako egoera azterketa. Definitutako ekintza ardatzak. Egindako ekintzen kronograma. Egindako Plana.	Funtzio Publikoaren Zuzendariordeztza	Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila
2.1.2 Lan-arloko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduera-protokoloa aldi berean behin berrikustea eta eguneratzea.	2021- 2023	Egindako jarraipen eta ebaluazio kopurua. Protokoloari proposatutako ekarpen kopurua.	Funtzio Publikoaren Zuzendariordeztza	Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila
2.1.3 Bizkaiko Foru Sektore Publikoko Foru Erakundeetan Berdintasun Planak egiteko eta abian jartzeko aholkularitza ematea, indarrean dagoen legeriaren arabera eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren lankidetzarekin.	2021- 2024	Plana egin eta onartu duten erakundeen kopurua eta ehunekoa.	Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusia	Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetea
2.1.4 "Danonartean" plataforman foru-erakunde publikoetan berdintasunaren arloko gune bat sortzea eta aldi berean eguneratzea.	2021- 2024	Berdintasunaren arloko gunea, Danonartean plataformaren esparruan sortua. Berdintasunaren arloan foru-erakundeekin partekatutako edukien kopurua. Sortutako webgunera egindako bisiten kopurua.	Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusia	Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetea

2.2 helburua. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren Sektore Publikoaren langileen prestakuntza progresibo eta iraunkorra bermatu.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
2.2.1 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta, teknikariei zuzendutako etengabeko prestakuntza-plan progresibo bat diseinatzea eta ezartzea, ardatz guztiak inplikaturako dituen eta Plan honen helburu estrategikoekin bat datorrena. (OHARRA: neurri horren garapena, jarraipena eta ebaluazioa Berdintasunerako Barne Planera eramango da).	2021-2024	Egindako ekintzen kopurua. Gaitutako pertsonen kopurua, sexuaren eta sailaren arabera bereizita. Inplikaturako pertsonen kopurua, sexuaren eta kategoriaren arabera.	Funtzio Publikoaren Zuzendariorde	Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Saila
2.2.2. Politikariei zuzendutako prestakuntza-ekintzak diseinatzea eta ezartzea, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta. Ekintza horietan, eduki hauek jasoko dira: Berdintasunerako oinarritzako prestakuntza –Foru Araudia eta Plana– eta beren sailtako urteko plan operatiboak ezartzeko prestakuntza espezifikoak.	2022-2024	Politikarientzako antolatutako prestakuntza-ikastaroen kopurua. Ikastaro bakoitzean parte hartutako pertsonen kopurua, sexuaren arabera bereizita. Prestakuntzan emandako ordu-kopurua, urtearen eta ikastaroaren arabera.	Funtzio Publikoaren Zuzendariorde	Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Saila
2.2.3 Bizkaiko Foru Aldundiko langileak gaitzea lan-arloko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzio- eta jarduketara-arloan. (OHARRA: neurri horren garapena, jarraipena eta ebaluazioa Berdintasunerako Barne Planera eramango da).	2021-2022	Prebentzioan eta jarduketan gaitutako pertsonen kopurua, sexuaren, kategoriaren eta sailaren arabera bereizita.	Funtzio Publikoaren Zuzendariorde	Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Saila

<p>2.2.4. BFAren prestakuntzan genero-ikuspegia txertatzearen jarraipena egitea Herri Administrazio eta Erakunde arteko Harremanen Sailaren eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren artean.(OHARRA: neurri horren garapena, jarraipena eta ebaluazioa Berdintasunerako Barne Planera eramango da).</p>	<p>2022- 2023</p>	<p>Jarraipen-bileren kopurua.</p>	<p>Funtzio Publikoaren Zuzendariorde</p>	<p>Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Saila</p>
<p>8.1.6 Berriazko ibilbideak dituzten enplegu-programak ezartzea egoera ahulean dauden emakumeentzat.</p>	<p>2021- 2024</p>	<p>Indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeentzako ibilbide espezifikoak dituzten enplegu-programen kopurua. Indarkeria matxistako egoerei aurre egin behar izan dieten emakume onuradunen kopurua.</p>	<p>Enplegu Zerbitzua</p>	<p>Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza</p>

8.2 helburua. Emakumeen eta gizonen arteko genero-arrakala murriztu eta ezagutza areagotu landa-ingurunean, ordaindutako enpleguan, zaintza-lanetan eta emakumeen parte-hartze soziopolitikoan emandako denboretan.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
8.2.1 Bizkaiko landa-inguruneetan bizi diren emakumeen baldintzei eta egoerei buruzko diagnostikoa egitea, eta, gutxienez, honako hauek aztertzea: titulartasuna eskuratzea, norberaren eta besteren kontura ordaindutako enplegua eskuratzea eta horretarako baldintzak, zaintza-kargak eta partaidetza soziopolitikoak.	2022	Diagnostikoa eginda	Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
8.2.2 Bizkaiko landa-inguruneetan bizi diren emakumeen baldintzen eta egoerei buruzko plan bat egitea, aurreko diagnostikoan identifikatutako eremu guztietarako helburuak eta ekintzak proposatuta.	2022	Egindako plana.	Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
8.2.3 Baliabide naturalak eta ingurumen-zerbitzuak kudeatzeko ekimenak sustatzea, emakumeen esperientziak balioesteko eta emakumeen parte-hartzea eta lidergoa sustatzeko.	2022- 2024	Sustatutako ekimenen-kopurua eta motak.	Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
8.2.4 Administrazioaren eta landa-ingurune emakumeen elkarteetan eta elkarte feministen eta/edo norberaren edo inoren kontura lan egiten duten landa-eremuko emakumeen interesak ordezkatzen dituzten entitate edo kolektiboaren arteko topaketa-, partaidetza- eta elkarrizketa-espazioak sortzea eta dinamizatzea.	2021- 2024	Sortutako/dinamizatutako partaidetza-espazioen kopurua. Emakume parte-hartzaileen kopurua	Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

<p>8.2.5 Lankidetzarako, elkartzeko edo elkarlanerako emakumeen egiturak sustatzea ekoizpen-sektore guztietan, lehen sektorearekin lotuta.</p>	<p>2022- 2024</p>	<p>Sustatutako partaidetza-egituren kopurua. Emakume parte-hartzaileen kopurua.</p>	<p>Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia</p>	<p>Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila</p>
<p>8.2.6 Semakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea, iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko politiketan genero-ikuspegia eta ekofeminismoaren printzipioak txertatuta.</p>	<p>2022</p>	<p>Egindako ekintza-kopurua. Parte-hartzaileen kopurua sexuaren arabera bereizita.</p>	<p>Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia</p>	<p>Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila</p>

8.3 helburua. Emakumeen eta nesken bazterketa bertikala eta horizontala eragotzi kirol federatuan eta eskola kirolean.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
8.3.1 Emakumeen kirol-jarduera eta emakumeek kirolean duten presentzia ikusarazten duten eta emakumeen parte-hartzea sustatzen duten ekintzak eta jarduerak diseinatzea.	2022-2024	Emakumeen kirol-jarduera eta emakumeek kirolean duten presentzia ikusarazteko egindako ekintzen/jardueren kopurua. Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren arabera bereizita	Kiroletako Zerbitzua	Euskara, Kultura eta Kirola Saila
8.3.2 Kirol federatuari beharrezko laguntza teknikoa eta laguntza ematea, berdintasunaren arloko legezko aginduak betetzen direla koordinatzeko.	2022-2024	Berdintasunaren arloko legezko aginduak betetzen direla koordinatzeko garatutako ekintzen kopurua. Foru Arauaren aginduak betetzen dituzten federazioen kopurua..	Kiroletako Zerbitzua	Euskara, Kultura eta Kirola Saila
8.3.3 Foru-eskumeneko eskola-kirolean Genero-eraginaren analisisan sakontzea.	2021-2022	Eskola-kirolean generoak duen eraginaren analisi egina.	Kiroletako Zerbitzua	Euskara, Kultura eta Kirola Saila

9. programa. Zaintza-lanetarako lurralde-diseinua genero-ikuspegiarekin

9.1 helburua. Emakumeen beharrei eta eskaerei erantzuteko neurriak jasotzen dituzten LPP eta HAPOen kopurua handitu.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
9.1.1 Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egitea, hirigintza feministan adituak diren taldeen aholkularitzarekin, Lurralde Plan Partzialak berrikusi edo aldatzen diren bitartean.	2021-2024	Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa duten LPPen kopurua. Aztertutako aldagaien kopurua honako hauei dagokienez: Berdintasuna espazio publikoan; Zaintza-lanetarako azpiegiturak; Mugikortasunean genero-ikuspegiaren txertaketa; Lurraldearen diseinuan hautemandako segurtasuna kontuan hartzea.	Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusia	Azpiegituretara ko eta Lurralde Garapenerako Saila
9.1.2 Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako udalerrietako hiri-antolamenduko plan orokorren genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioen kantitateari eta kalitateari buruzko diagnostikoa egitea, diseinuaren kalitateari eta neurrien ezarpenari dagokienez.	2022	Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa duten HAPOen kopurua. Bizkaiko Lurralde Historikoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorretako genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioetan aztertutako aldagaien azterketa konparatiboa. Hiri Antolamenduko Plan Orokorretan berdintasunerako neurriak nola txertatzen diren aztertzea, neurri motaren arabera.	Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusia	Azpiegituretara ko eta Lurralde Garapenerako Saila
9.1.3 Bizkaiko Lurralde Historikoko berezko HAPOen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak egitean Kalitate-eredu bat definitzea.	2022	Egindako eredua. Eremuan jasotako aldagaien kopurua. Eredua hedatu den udalerrien kopurua.	Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusia	Azpiegituretara ko eta Lurralde Garapenerako Saila

9.1.4 Hirigintza feministari eta hirigintzari buruzko gogoeta-, gaikuntza- eta koordinazio-prozesuak diseinatzea genero-ikuspegiarekin, Bizkaiko administrazioko teknikariei zuzenduta, bai hirigintzako arduradunei, bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko arduradunei (prestakuntzak eta topaketa-jardunaldiak, aldizkakoak, ez puntualak).

2021-2024 Antolatutako gogoeta- eta gaikuntza-prozesuen kopurua, helburuaren arabera bereizita.
Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren eta profilaren arabera bereizita.

**Lurralde
Garapeneko
Zuzendaritza
Nagusia**

Azpiegituretara
ko eta Lurralde
Garapenerako
Saila

9.2 helburua. Bizkaiko Lurralde Historikoaren mugikortasun sistemaren aukerak eta ezaugarriak emakumeen beharretara gehiago egokitu.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
9.2.1 Bizkaibusen gogobetetasun-inkesten adierazle-sistema bat ezartzea, beren zerbitzuak eguneroko bizitzako hainbat premiatara zenbateraino egokitzen diren ebaluatzeko, bereziki zaintza-lanen ondoriozkoetara, eta zerbitzuen erabileran dauden genero-arrakalen kausak aztertzeko.	2022	Genero-arrakalak hiriarteko mugikortasuneko garraio publikoaren erabileran. Ibilbideak emakumeen eta gizonen beharretara egokitzeari buruzko adierazleak eta zaintza-lanen ondoriozko premien estaldura-mailari buruzkoak. Ezaugarri ergonomikoak emakumeen eta gizonen beharretara eta zaintza-premietara egokitzeari buruzko adierazleak.	Garraioko Zuzendaritza Nagusia	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila
9.2.2 Jarraipena egitea jakiteko Bizkaibus zerbitzua ematen duten enpresen barneko berdintasun-planak zenbateraino egokitzen zaizkien enpresetan berdintasun-planak egiteari buruz indarrean dagoen araudiari eta 4/2018 Foru Arauaren aginduei.	2021- 2024	Berdintasun-planak onartuta dituzten enpresen kopurua. EAEn ezarritako gomendioak betetzen dituzten diagnostikoen kopurua Estatuko araudia betetzen duten planen kopurua.	Garraioko Zuzendaritza Nagusia	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila
9.2.3 Bizkaibusen zerbitzuak erabiltzeko genero-arrakalak eta haien beharretara egokitzeko maila identifikatzen dituen memoria egitea, zeharka, memoria osoan.	2022	Bizkaibuseko inkestetan eta gogobetetasun-azterlanetan analizatutako aldagai guztietan dauden genero-arrakalak identifikatzen dituen memoria.	Garraioko Zuzendaritza Nagusia	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila

IV. ARDATZA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

10. programa. Indarkeria matxistari buruzko ikerketaren eta ezagutzaren sustapena

10.1 helburua. Foru politikek indarkeria matxistaren arloan aurre egin beharreko erronkak identifikatu ikuspegi feminista eta interseksional batetik.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
10.1.1 Foru Sektore Publikoaren indarkeria matxistaren arloko esparru kontzeptuala, politikak eta antolaketa-eredua definitzea, prebentzioaren, arretaren eta erreparazioaren arloko lehentasunak identifikatuz.	2021	Indarkeria matxistaren arloko esparru kontzeptual zehaztua. Atzemandako lehentasunen kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
10.1.2 Sailek indarkeriaren arloan dituzten eskumenen eta/edo jarduera-eremuen diagnostikoa egitea, Bizkaiko Foru Sektore Publikorako definitutako kontzeptu-esparruarekin bat etorriz.	2022	Sailek indarkeria matxistaren arloan dituzten eskumenen eta/edo jarduera-eremuen diagnostiko egina.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
10.1.3 Bizkaiko Foru Sektore Publikorako indarkeria matxistaren arloan borrokatzeko foru-estrategia diseinatzea eta ezartzea.	2022	Diseinatutako estrategia.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza

10.2 helburua. Indarkeria matxistaren intzidentziari eta ondorioei buruzko ezagutza handitu.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
10.2.1 Indarkeria matxista zer eremutan gertatzen den, nola agertzen den eta horrek zer eragin duen aztertzea eta/edo horri laguntzea, emakumeen eta beste biktima batzuen aniztasuna eta horietan eragina duten diskriminazio-ardatzak kontuan hartuta.	2021-2024	Indarkeria matxista gertatzen den eremuei, haren adierazpenei eta haren eraginari buruz egindako azterketen kopurua. Analisian kontuan hartutako diskriminazio faktoreak.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
10.2.2 Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren adierazleak berrikustea eta eguneratzea, jarduerak, baliabideak eta zerbitzuak emakumeen eta neskatoen beharretara nola egokitzen diren ebaluatu eta hobetu ahal izateko, haien aniztasuna kontuan hartuta.	2021-2024	Indarkeriaren Behatokiaren adierazle berrikusiak. Indarkeriaren Behatokiaren adierazle erantsien kopurua. Ezabatutako Indarkeriaren Behatokiaren adierazle-kopurua. Indarkeriaren Behatokiaren adierazle aldatuen kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
10.2.3 Bizkaiko indarkeria matxistari buruzko informazioa biltzeko, sistematizatzeko eta zabaltzeko tresna birdiseinatzea, erabiltzaileen, herritarren, teknikarien eta ikerketa-eragileen beharretara egokituta.	2022	Indarkeria matxistari buruzko informazioa biltzeko, sistematizatzeko eta zabaltzeko Bizkaiko tresna aldatua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza

11. programa. Indarkeria matxista prebenitzeko balioen aldaketa

11.1 helburua. Biztanleak sentsibilizatu eta informatu indarkeria matxistaren forma guztien intzidentziari eta irismenari buruz.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
11.1.1. Indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazio-kanpainak, -jardunaldiak eta -jarduerak egitea, pertsonen aniztasuna, indarkeria-adierazpenak eta inpaktua ahalik eta gehien ikusarazteko.	2021-2024	Indarkeria matxistari buruz egindako kanpaina, jardunaldi eta sentsibilizazio-jardueren kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
11.1.2 Kanpoko erakundeak eta gizarte-eragileak prebentzioan eta gizarte-eraginean sentsibilizatzeko proiektu berritzaileak babestea.	2021-2024	Indarkeria matxistaren arloan sentsibilizatzeko kanpoko erakundeen proiektu berritzaile babestuen kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza

11.2 helburua. Indarkeria matxistaren forma sotilenak eta normalizatuenak identifikatzeko eta horien kontzientzia hartzeko prozesuak sortu, eta indarkeria iraunarazten duten egiturak eta sinboloak eraldatu.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
11.2.1 Indarkeriaren adierazpen normalizatuagoen, sotilagoen edo ezkutukoenen analisiak eta/edo diagnostikoak egitea, interseksionalitateari eta aniztasunari erreparatuta.	2021-2024	Indarkeria normalizatuaren adierazpideei buruz egindako diagnostikoa. Aintzat hartutako diskriminazio interseksionaleko faktoreen kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
11.2.2 Indarkeria-adierazpen normalizatuenak, sotilenak edo ezkutukoena identifikatu ondoren, prozesu eraldatzaileak diseinatzea ahalbidetuko duten jarduerak definitzea.	2022-2024	Gauzatutako jarduketaren kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
11.2.3 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren helburuekin bat datorren lan-estrategia diseinatzea eta garatzea, gizonen eta haurrei beren aniztasunean arreta eskainiz, berdintasuna bultzatzeko, botere-harremanak eteteko eta pribilegio-sistemak deseraikitzeke.	2024	Gizonekin eta haurrekin lan egiteko diseinatutako estrategia. Indarkeria matxista prebenitzeko jardueretan parte hartzen duten gizonen eta haurren kopurua. Indarkeria matxista prebenitzeko jardueretan parte hartutako gizonen eta haurren kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza

12. programa. Indarkeria matxistari aurre egiteko ikuspegi interseksionaletik ahalduztearen sustapena

12.1 helburua. Arreta-sisteman ikuspegi feminista eta interseksionala duen begirada integrala txertatu, biktimen errekupeziarako eta erreparaziorako eskubidea azpimarratuz

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
12.1.1 Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren esparruan egindako gomendioak betetzeko estrategiak eta ekintzak definitzea.	2023	BIMBren esparruan egindako gomendioak betetzeko egindako ekintzen kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
12.1.2 Biktimei arreta emateko programetan ahalduzte-ikuspegia, erresilientziaren sustapena, erreparaziorako eskubidea eta ikuspegi komunitarioa txertatzea, emakumeen eta haurren errealitatearen ikuspegi interseksionalarekin.	2021- 2024	Biktimentzako arreta-programetan ahalduztearen ikuspegia txertatzeko ezarritako neurrien kopurua. Indarkeria-egoerei aurre egiten dieten emakumeek ezarritako neurriekiko duten gogobetetze-maila, adinaren, jatorriaren, dibertsitate funtzionalarekiko egoeraren eta maila sozioekonomikoaren arabera berezita.	Emakumeentzak o eta Familiarentzako Zerbitzua	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
12.1.3 Biktimarengandik bizirik dirauenengana igartzeko prozesuan lagunduko duten programak/zerbitzuak finkatzea, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta.	2021- 2024	Bizirik dirauen biktimari laguntzeko finkatutako programen kopurua. Indarkeria-egoerei aurre egin dieten emakumeen asebetetze-maila, beren irteera-prozesuari dagokionez.	Emakumeentzak o eta Familiarentzako Zerbitzua	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza

13. programa. Kaltearen erreparazio eskubidearen garapena eta artikulazioa

13.1 helburua. Erreparazioaren fokuratzea txertatu Bizkaiko Sektore Publiko Foralaren indarkeria matxistari buruzko politketan.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
13.1.1 Foru Sektore Publikoan emakumeen ahotsetatik abiatuta erreparazioari, aitorenari eta memoriari buruzko lan-ildo bat garatzeko hausnarketa egitea.	2023	Indarkeria matxistaren arloan egindako erreparazio-, aitoren- eta memoria-arloan egindako lan-estrategia.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
13.1.2 Erreparazioaren, aitorenaren eta memoriaren arloan Foru Sektore Publikoko emakumeen ahotsetatik jarduteko jarraibideak definitzea.	2024	Jarraibide definituak.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
13.1.3 Indarkeria matxistaren biktimen eta bizirik atera direnen memoria indibiduala eta kolektiboa berreskuratzeko eta indarkeria matxistaren forma guztiak kolektiboki arbuiaitzeko ekintzak egitea.	2022- 2024	Indarkeria matxistaren biktimen eta bizirik atera direnen memoria indibiduala eta kolektiboa berreskuratzeko ekintzen kopurua. Indarkeria matxistaren biktimen eta bizirik atera direnen memoria indibiduala eta kolektiboa berreskuratzeko ekintzetan inplikaturako pertsonen kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
13.1.4 Bizirik atera diren emakumeekin ahalduzko sozial eta politikorako prozesuen programa pilotu bat sortzea (eraldaketa sozialeko eragileak eta erreferente positiboak), Emakume eta Familia Zerbitzuarekin koordinatuta.	2022- 2023	Ezarritako indarkeria-egoerei aurre egin dieten emakumeekin gizarte eta politika ahalduzko prozesuen programa pilotua. Programan parte hartutako emakumeen kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
13.1.5 Konponketa-lerroan eta kaltea ez errepikatzen lanetan gizonen lan egiten duten erakundeekin programak sortzea eta/edo laguntzea.	2022- 2024	Lagundutako/sortutako programen kopurua. Programan parte hartutako gizonen kopurua, adinaren eta jatorriaren arabera bereizita. Programan parte hartutako gizonen kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza

14. programa. Indarkeria matxistari buruzko koordinazioaren hobekuntza

14.1 helburua. Indarkeria matxistari buruzko koordinazio egiturak eta espazioak handitu eta hobetu Sektore Publiko Foralean.

NEURRIA	URTEA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNA	SAILA
14.1.1 Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren eta Emakume eta Familia Zerbitzuaren artean lantalde tekniko egonkor bat sortzea eta dinamizatzea, indarkeria matxistaren arloko ildo estrategikoak lerrokatzeko.	2021-2024	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzaren eta Emakume eta Familia Zerbitzuaren arteko bileren kopurua. Landutako gaien kopurua eta mota.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
14.1.2 Bizkaiko Foru Sektore Publikoko berdintasun-egituretan (Sailarteko Batzordea, Berdintasuna Taldea eta Sailarteko Batzordeak) indarkeria matxistari buruzko berriazko lan-espazioak sortzea, eskumeneren diagnostikoan identifikatutako sailekin.	2022-2024	Indarkeria matxistari buruzko berdintasun-egituren esparruan egindako bileren kopurua. Lortutako akordioen kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza
14.1.3 Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarean indarkeria matxistaren arloko koordinazio- eta lan-espazioak sortzea.	2021-2024	Sortutako espazioen kopurua eta motak. Lurralde Sarean indarkeria matxistari buruz egindako bileren kopurua.	Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza	Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza

<p>14.1.4 Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluan indarkeria matxistaren arloko koordinazio- eta kontraste-guneak eskaintzea.</p>	<p>2021- 2024</p>	<p>Sortutako espazioen kopurua eta motak. Indarkeria matxistari buruz Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluan egindako bileren kopurua.</p>	<p>Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza</p>	<p>Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza</p>
<p>14.1.5 Erakundearteko koordinazio-espazioak dinamizatzea eta lan-ildoak proposatzea Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren esparruan.</p>	<p>2021- 2024</p>	<p>BIMBren esparruan egindako erakunde arteko koordinazio-bileren kopurua.</p>	<p>Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza</p>	<p>Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza</p>
<p>14.1.6 Sexu-esplotaziorako xedez egindako Trafikoari buruzko Plana eguneratzea, garatzea, koordinatzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea.</p>	<p>2021- 2024</p>	<p>Plan eguneratua. Koordinazio-bileren kopurua. Koordinazio-bileretara joandako pertsonen kopurua, sexuaren eta profilaren arabera bereizita.</p>	<p>Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza</p>	<p>Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza</p>
<p>14.1.7 Komunikazio- eta lankidetzeta-bideak ezartzea hirugarren sektoreko eragileekin eta emakumeen elkarte-ehunarekin eta mugimendu feministarekin.</p>	<p>2021- 2024</p>	<p>Ezarritako kanal motak. Hirugarren sektoreak eta emakumeen elkarte-sareak eta mugimendu feministak egindako ekarpenen kopurua. Ezarritako hirugarren sektorearen, emakumeen elkarte-sarearen eta mugimendu feministaren ekarpenen kopurua.</p>	<p>Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza</p>	<p>Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza</p>



6. LAN EGITURAK ETA KUDEAKETA ETA EBALUAZIO SISTEMA

6.1.1 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOA

Osaketa: Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organo gisa jardutea.

Funtzioak: Organo honek betetzen dituen eginkizunak 4/2018 Foru Arauaren 8. artikuluan zehaztuta daude.

Barnean, Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-politikak bultzatu, antolatu, koordinatu, horien jarraipena egin eta ebaluatzea eskatzen dute, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko sailei laguntza eta aholkularitza ematea ere, beren politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txerta dezaten. Era berean, bere ekintza propioak izango ditu, hala nola genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak egiaztatzeko organo gisa jardutea, estatistikak eta azterlanak egitea, eta, eskumena duen zerbitzuarekin batera, berdintasunaren arloko prestakuntza-programak koordinatzea.

Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-politiken garapena bultzatzea, aholkatzea eta laguntzea dagokio, bai eta Bizkaiko udaletako berdintasun-teknikarien sare-lana babestea ere. Eginkizun horiei heltzeko, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea koordinatzen eta ezartzen da.

Ahalduntzeari dagokionez, honako hauek dagozkie: emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzen duten esparruak eta prozesuak sortzea eta sendotzea, emakumeen asoziazionismoa indartzen duten neurriak garatzea eta emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoa sustatzea, eta Bizkaiko emakumeen mugimendu feministarekin eta elkarte-mugimenduarekin harremanak izateko eta lankidetzan aritzeko bideak ezartzea eta koordinatzea. Eginkizun hori betetzeko, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua eratu eta dinamizatzen da. Kontseilu hori otsailaren 18ko 17/2020 Foru Dekretuaren bidez sortu zen, elkarte feministek, emakume-elkarteek eta beste erakunde eta organismo batzuek parte hartzeko organo gisa, baldin eta beren helburuak edo eginkizunak direla-eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen badute.

Azkenik, indarkeria matxistaren arloko jarduera koordinatzea, sentsibilizatzea eta prebenitzea dagokio, baita Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia kudeatzea eta sexu-esplotazioarako salerosketa-plana koordinatzea eta haren jarraipena egitea ere.

Aipatutako eginkizunak garatzeko eta, bereziki, plan hau koordinatu, jarraitu eta ebaluatzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak egitura egonkor bat izango du, batez ere Berdintasun Zuzendaritzako berdintasun-teknikariek osatua.

6.1.2 SAILARTEKO KOORDINAZIO EGITURAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO SAILARTEKO BATZORDEA

Osaketa: 4/2018 Foru Arauaren 13. artikulua arautzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea, eta gaur egun 11 kidek osatzen dute. Zuzendaritza nagusiaren maila dute, foru-sail bakoitzak eta diputatu nagusiari laguntzeko unitateari atxikitako kabinete bakoitzak izendatuta. Berdintasunerako Organoa atxikita dagoen saileko diputatua izango da lehendakaria, eta lehendakariordea, berriz, organo horretako zuzendaria.

Funtzioak: Eginkizun nagusia da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko elkarrizketa-organo iraunkorra izatea foru-sailen artean eta horien eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren artean, eta berdintasunaren arloan indarrean dauden araudia eta planak aplikatzea eta eraginkortasunez betearaztea bultzatzea.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiko sail bakoitzak bere jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aplikatzeko hartu beharreko neurriak koordinatu behar dituzte urtero, eta genero-ikuspegia zeharkakotzeko Bizkaiko Foru Aldundi osoari eragiten dioten neurrien garapena bultzatu behar dute. Ekitaldi bakoitza amaitzean, berdintasunaren arloan garatutako ekintzen urteko jarraipen-txostena ere onartu behar du, Talde Teknikoak egina, Berdintasuna Taldeak.

SAILARTEKO TALDE TEKNIKOA: BERDINTASUNA TALDEA

Osaketa: Sailarteko Talde Teknikoa 4/2018 Foru Arauaren 14. artikulua arautzen du, eta Bizkaiko Foru Aldundiko sail bakoitzean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duen unitate bakoitzeko arduradun batek osatzen du; ahal dela, zerbitzu orokorren zerbitzuko burutzek.

Funtzioak: Eginkizun nagusien artean dago Bizkaiko Foru Aldundiko sail bakoitzari eta haren sektore publikoari eragiten dieten berdintasun-arloko jarduera-proposamenak koordinatzea eta ezartzea, eta esperientziak eta proposamenak partekatzeko gune izatea, foru-sailen artean sinergiak sortzeko, berdintasun-politiken kudeaketa eta eraginkortasuna optimizatzen. Urtero, egindako ekintzen eta erabilitako bitarteko eta baliabideen jarraipen-txosten bat egin behar du, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeari aurkeztu, onar dezan, baita Foru Arauan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plan honetan aurreikusitako helburuen lorpenari buruzko balorazio bat ere. Horretarako, sail bakoitzak, horretarako diseinatutako mekanismoen bidez, gauzatutako ekintzen eta erabilitako bitarteko eta baliabideen berri emango du.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO SAIL BARRUKO BATZORDEAK

Osaketa: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sail barruko batzordeak 4/2018 Foru Arauaren 15. artikulua arautzen ditu, eta hauek osatzen dituzte: sailean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duen unitateko arduraduna, batzordea koordinatzea duena, eta Zerbitzu bakoitzeko ordezkari bat, ahal dela, zerbitziburua. Horrez gain, sail barruko batzordeetan Bizkaiko Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen ordezkari bat ere egongo da. VI. Foru Plan hau egiteko prozesuan, legegintzaldi honetarako osaera zehazten duten foru-aginduak onartu dira.

Funtzioak: Haren eginkizun nagusia da sail bakoitzaren barruan Berdintasunerako Foru Planeko ekintzak bultzatzea eta koordinatzea, berdintasun-politiken programazioa, jarraipena eta ebaluazioa kudeatzea eta dagokion jarraipena egitea. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko sail bakoitza osatzen duten pertsonen arteko emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko elkarrizketa-organoa da, bai eta elkarrizketarako eta esperientziak eta jarduera-proposamenak bateratzeko gunea ere, berdintasunerako foru-politiken kudeaketa eta emaitzak optimizatzeko sinergiak sortzeko.

6.1.3 PARTE HARTZEKO ETA LURRALDE LANKIDETZAKO EGITURAK

BIZKAIKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LURRALDE SAREA

Osaketa: Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 127/2020 Foru Dekretuak arautua, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek osatzen dute, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak ezarritako konpromisoak hartzen dituzte beren gain. Konpromiso horiek aldian-aldian eguneratzen dira, eta Lurralde Sarearen Batzarrean onartzen dira, Lurralde Sarearen Kontseiluak proposatuta.

Funtzioak: Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarearen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko udalerrien artean erakunde arteko lanerako eta koordinaziorako gune eratzea, Bizkaiko Lurralde Historikoan berdintasun-politikak bultzatzeko.

Helburua da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan hausnarketa, ikaskuntza, solaskidetza eta koordinaziorako espazio komun bat erraztea. Tokiko berdintasun-politikan eragitea eta horiek indartzea du helburu, bai eta udaletan eta, hala badagokio, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten udalaz gaindiko erakundeetan berdintasun-arloek duten zeregina indartzea ere, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aniztasuna aintzat hartuta.

BIZKAIKO EMAKUMEEN PARTE HARTZERAKO KONTSEILUA

Osaketa: Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua otsailaren 18ko 17/2020 Foru Dekretuak arautzen du. Dekretu hori 2018ko azaroan hasi zen parte-hartze prozesu baten emaitza gisa onartu zen, bertan emakumeen hainbat ikuspegi eta esperientzia integratzeko helburuarekin. Elkarte eta talde feministek, emakumeen elkarte edo kolektiboek eta berdintasun-arloak dituzten elkarteek osatzen dute.

Funtzioak: Kontseiluak hainbat helburu ditu, bai elkarteak osatzen duten elkarte eta kolektiboen barne-lana errazteko, bai Bizkaiko Foru Aldundiarekin duten lotura errazteko eta haren eta herritarren arteko harremanetan laguntzeko.

Barne funtzioen artean, honako hauek daude: Kontseiluko kideen arteko komunikazioa eta harremanak sustatzea, elkarrekin topo egiteko, elkarren beri izateko, elkar ezagutzeko, elkarrekin sarean lan egiteko eta esperientziak partekatzeko, emakumeen kolektiboak indartzen laguntzea, eta osieran Bizkaiko emakumeen ordezkaritza askotarikoa izan dadin laguntzea.

Bizkaiko Foru Aldundiarekin duen loturarekin lotutako helburuak, nagusiki, Foru Aldundiaren eta elkarte feministen eta emakumeen elkarten arteko komunikazioa, lankidetzeta eta koordinazioa bultzatzea, Berdintasunerako Organoak garatzen dituen politikei buruzko alde zuzeneko informazioa jasotzea eta Bizkaiko Foru Aldundiaren politiketara proposamenak eramatea Bizkaiko emakumeen beharrei eta aldarrikapenei buruz.

Azkenik, herritarrekiko harremanean, Kontseiluaren jardunari buruzko informazioa helarazteaz, indarkeria matxistaren edozein forma ikusarazi eta salatzeaz, eta Bizkaian berdintasunaren arloko arauak, batez ere 4/2018 Foru Araua, betetzeko neurriak proposatzeaz eta bultzatzeaz arduratzen da.

6.1.4 ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIO EGITURAK

BIZKAIKO INDARKERIA MATXISTAREN BEHATOKIA

Osaketa: Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiak autonomia-, foru- eta toki-mailako erakunde publikoetako ordezkaritza instituzionalak biltzen ditu, baita emakumeen elkarte-mugimendukoak eta gizarte-erakundeetakoak ere, indarkeria matxistaren aurkako jardueren plangintzan eta eskaintzen diren baliabideetan lan egiten dutenak. Funtzionatzeko, osoko bilkurak (urteko osoko bilkura bat eta bi artean) eta beharren arabera deitzen diren lantaldeak hartzen dira oinarri.

Funtzionamendua: Eginkizun nagusia Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatzen diren indarkeria matxistako egoeren jarraipena egitea da, bai eta abian jarritako politika eta baliabide instituzionalen ondorioena ere, benetako beharrei erantzuten laguntzeko. Era berean, eskuratutako ezagutza zabaltzen du, eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte hartzen duten erakundeen, profesionalen eta gizarte-eragileen eskura jartzen du, baita indarkeria-egoerei aurre egiten dieten emakume eta neskatuen eta, oro har, herritar guztien eskura ere.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEARTEKO BATZORDEA (EMAKUNDE)

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundia Emakunderen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeko kide da, autonomia-, foru- eta toki-administrazioak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituen politikak eta programak koordinatzeko organoa den aldetik. Era berean, batzordeen behar estrategikoei erantzuteko sortutako Erakundearteko Talde Teknikoetan parte hartzen du.

6.2 PLANIFIKAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

6.2.1 FORU SEKTORE PUBLIKOAREN URTEKO PLAN OPERATIBOA

Plana indarrean dagoen urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak jarraipen-tresnatik aterako ditu hurrengo urterako planifikatutako neurriak, eta Berdintasuna Taldeko ordezkariak bidaliko dizkie, zehaztu eta eraginkor bihurtzeko.

Organo horretako ordezkariak foru-sail bakoitzeko batzordeetako ordezkariekin batera eta haiekin koordinatuta zehaztuko dute dira jarduerak noiz eta nola gauzatuko diren; jarduera horiek berdintasunerako organoari helaraziko zaizkio eta Sailarteko Talde Teknikoarekin aztertuko eta baliozkotuko dira.

Emaitza Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeari aurkeztuko zaio, eta sail barruko batzordeen artean zabalduko da.

6.2.2 URTEKO MEMORIAREN JARRAIPENA ETA LANKETA

Urteko plan operatiboak lan-programa bat izango du, barne-koordinazioko egitura bakoitzarekin jardueraren jarraipena egiteko.

Hiru hilean behin, lan-saioak egingo dira Berdintasuna Taldearekin, kideei mainstreaming estrategia ezartzeko tresnei buruzko prestakuntza eta informazioa emateko, sail barruko batzordeen eta Bizkaiko Sektore Publikoko langile guztien artean tresnak zabaltzeko lan-prozesuak definitzeko, tresnen ezarpenean esperientziak partekatzeko eta plan operatiboan jasotako ekintzen jarraipena egiteko.

Sail barruko batzordeak urtero deituko dira, beren lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatzeko gaituko dituzten prestakuntza- eta ekintza-prozesuetan parte har dezaten.

Urtearen amaieran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak, Berdintasuna Taldearekin batera, urteko plan operatiboan jasotako ekintzen betetze-mailari buruzko informazioa biltzeko prozesua egingo du, bai eta adierazleak betetzetik abiatuta egindako ekintzen emaitzei buruzkoa ere. Informazio hori oinarria izango da urteko planaren betetze-mailari buruzko urteko memoria bat egiteko. Memoria hori Berdintasuna Taldeari eta Emakumeen eta Gizonen Sail arteko Batzordeari aurkeztuko zaie, onar dezaten.

6.2.3. EBALUAZIOA

Planaren indarraldia amaitzean, honako hauek jasoko dituen ebaluazioa egingo da:

- Betetze-mailaren azken ebaluazioa. Urteko memorietatik abiatuta, helburuen betetze-maila eta plana betetzeko planteatutako neurriak, onuradun zuzenak eta emaitzak aztertuko dira.
- Koherentziaren ebaluazioa. Bizkaiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken dimentsio kontzeptual eta substantiboa aztertuko da, eta, beraz, jarduerak gauzatze hutsetik harago joango da, horien eduki politikoak baloratzeko eta haien kalitateari eta eraldaketa-potentzialari buruz hausnartzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko politika sektorialen bilakaeraren esparruan.
- Prozesuaren ebaluazioa. Plana inplementatzeko prozesuari berari eta haren antolakuntza- eta ekintza-hedapenari buruzko gogoeta egingo da, batez ere kideek ikuspegi pluraletik duten inplikazioari, dauden laguntza-tresnekiko asebetetzeari eta lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatzeko gaitasuna areagotzean duen erabilgarritasunari buruz dituzten balorazioei erreparatuta.
- Eraginaren ebaluazioa. Azkenik, berdintasun-politikek genero-ikuspegidun politika publikoen diseinuan eta genero-arrakalen murrizketan dituzten ondorioak aztertuko dira.

Betetze-mailaren azken ebaluazioa Berdintasuna Taldeko arduradunek urtero neurrien eta adierazleen garapenari buruz emandako informazioan oinarrituta egingo da; koherentziaren eta prozesuaren ebaluazioa, berriz, barne-koordinazioko egiturekiko lan-taldeetan oinarrituta egingo da.

Azkenik, eraginaren ebaluazioa VI. Planean planteatutako tarteko ebaluazioen laburpenaren bidez egingo da, genero-ikuspegia bermatuko duten lan-prozedurak sartzean izandako aurrerapenak ezagutzeko, eta sailek eta bigarren mailako iturriek emandako informaziotik abiatuta, genero-arrakalen bilakaera jaso ahal izateko.

6.3 AURREKONTUA

Planean aurreikusitako neurriak sail eta erakunde arduradunek gauzatuko dituzte, ekitaldi bakoitzean esleituta dituzten aurrekontu-kredituen kargura.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak honako hau ezartzen du hirugarren xedapen gehigarrian:

“Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuen foru-arauaren proiektuak urtero zehaztuko ditu emakume eta gizonen berdintasunerako erabiliko diren kredituak, foru-arau honetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Planean eta plan sektorialetan ezarritakoarekin bat. Helburua da ekitaldi bakoitzean Bizkaiko Foru Aldundiaren berezko kudeaketako aurrekontuaren %1 izatea kredituon gutxieneko zenbatekoa. Ehuneko hori, gainera, berrikusi ahal izango da oinarrizko zerbitzu eta prestazioak baldintzatu ditzaketen ezohiko inguruabar juridikoak edo aurrekontu-arlokoak gertatuz gero”.

Xedapen hau betetzen dela jakinarazteko, planaren indarraldiko ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuen Foru Arauaren genero-eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostenak berdintasunera bideratutako zenbatekoa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propioko aurrekontuan duen ehunekoak jaso beharko ditu.

Hala, 2021eko aurrekontuen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioan esleitutako aurrekontua 16.336.687,00 €koa da, Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propioko aurrekontuaren %1,20.

Bestalde, plan honek genero-ikuspegia duen aurrekontu-tresna berrikustea eta hobetzea helburu duen neurri bat jasotzen du, kopuru hori zehaztasun kuantitatibo eta kualitatibo handiagoz zehaztu ahal izateko.